



ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia
estreinatuko
dugu domekan:
goizeko ordu
bietan, hirurak
izango dira.



Zilarrezko Arbizu

25. Arbizuko Duatloiak omenaldia eta argazki erakusketa dakartza / 18-19

**Parlamentuan
gasbide proiekturako
"hausnarketa eta
zentzua" eskatu
dute alkateek / 9**

**Arakilgo kooperazio
bekaren emaitzaren
berri emanen dute
Hiriberri Arakilen
gaur / 12-13**

**Burunda
Txirrindularitza
Taldeak 47.
denboraldiari ekin
dio, ilusioz / 17**

**Irurtzongo SALV Rural
Hardcore taldeak
kontzertua emanen
du bihar, Altsasuko
Gaztetxean / 22**



ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

Sakanako gazteak sarezen. Sakana egiteko.

Batxilergoko eskaintza:

Giza zientziak
Gizarte zientziak
Osasun zientziak
Teknologia eta ingeniari-tza
Orokorra

Aurrematrikula: martxoaren 27tik 31ra

IES.ALTSASU.BHI



Dispertsioaren zenbait istorio

Sakandar presoak dagoeneko Euskal Herriko espetxeetan daude, eta Etxarriko Sarek eta Etxeratek esan bezala, atzean gelditu da "urrunketan eta sakabanaketan" oinarritutako espetxe politikaren aro historiko bat

SAKANA

Sakandar asko izan dira dispertsioaren espetxe politikaren historiaren protagonista, Etxarri Aranazko Sarek eta Etxeratek adierazi bezala. Haietako askok espetxean bizi izan dute egoera, eta beste askok kanpoan. "Sufirimenduarekin batera erresilientziarako gaitasunak, borrokak eta elkartasunak ezaugarritu duen aro bat izan da", esan dute Etxarriko Saretik. Momentu honetan preso dauden sakandarrak Euskal Herriko espetxeetan daude: Asier Karrera eta Luis Mariñelarena Martutenen, Juan Ramon Karasatorre Iruñean eta Unai Parot Zaballan, baina urte luzez senide, lagun eta herritik milaka kilometrotara egon dira.

Hainbat sakandarrek bizi izan dituzte sakabanaketa eta urrunketa egoerak eta istorioak; tartean Joxe Flores, Koldo Flores, Juan Antonio Lasa, Jose Antonio Gurmindo, Juanito Nazabal, Felix Altelai, Alain Berastegi eta abarrek espetxearen barruan jasan behar izan zuten dispertsioa, eta dispertsio politikak ere kanpoan zeudenak zigortzea zuen helburu eta horretan Puri Galartza, Garaiz Barandalla, Xochitl Karasatorre eta beste hainbat egon dira. Izen oso gutxi batzuk dira Sakanak, eta bereziki Etxarri Aranatzek, bizi izan duen dispertsioaren historiaren barruan.

Kronika

"Herri baten historia hari jarraitu bat da, izan zirelako gara,

garelako izango dira...". Etxarri Aranazko Sarek egindako atzera begiradan, dispertsioaren historia frankismoaren azken urteetan Euskal Herrian piztu zen "askatasunaren aldeko borrokal-diaren" testuinguruan jarri behar dela dio, "baina historia ezin da laban batekin une zehatz batean moztu".

Frankismoaren aurretik ere arrazoi politikoengatik preso izandakoak eta urrunduak izan diren etxarriarrak gogora ekarri nahi izan dituzte; "Denak gogoan, izen bat botako dugu: Antonio Larrañaga Goñi borroka anarkistan engaiatua, banketxeak lapurtzeagatik hartu zuten preso 1934an". Burgosko presondegian egon zen 1936ko estatu kolpea izan arte, eta "espetxetik atera zutenean baso batean fusilatzeko izan zen". Garai horretan beste sei etxarriar atxilotu eta fusilatu zituzten Urban. Historia luzea da. "Antonio Larrañagaren senide zuzen bat, bi belaunaldi geroago sortua, preso egon zen hamazazpi urtez Iruñea, Soria, Alcalá, Carabanchel, Herrera de la Mancha, Cartagena, Huesca eta Logroño-ko espetxeetan".

1975ean Franco diktadorea hil zenean bost etxarriar zeuden preso, hiru gizonezko eta bi emakume, Sarek jakinarazi duenez. Carabanchelen egonaldi labur bat izan ezik, Iruñeko espetxean bete zuten zigorra eta 1977ko amaieran Espainiako Gobernuak

eman zuen indulto orokorrarekin atera ziren kalera. 1978ko urtearen hasieran Iruñean izandako tiroketa baten ondorioz, etxarriar bat atxilotu zuten eta sei hilabetez preso egon zen Iruñean eta beste hiru etxarriarrek Frantziako estatuko muga zeharkatu behar izan zuten poliziarengandik babesteko. "Horietako baten gorpua tiroz josia 22 hilabete geroago ekarri zuten; beste bat 25 urte munduan zehar ibili eta gero herrira itzuli zen eta, hirugarrena, Etxarritik atera zenetik 42 urtera, jadanik, pasa den urteko azarotik, gure artean dago".

Elkartasuna

1978. urteko amaieratik hasiak ziren preso politikoak Euskal Herrian zeuden presondegietatik Soriako espetxera lekualdatzen herritarrekiko sortzen zen "elkartasunaren indarrarekin ikaratuta". Urte berean, uztailearen 8an, sanferminetan, Iruñeko zezen plazara presoak kalera tzearen aldeko pankarta bat sartu zuten eta poliziak "sekulako sarraskia" egin zuen.

1979an Etxarri Aranazko eta Lizarragabengoako zortzi lagun atxilotu zituzten eta komisalde-

1978AN HASIAK ZIREN PRESO POLITIKOAK EUSKAL HERRITIK SORIAKO ESPETXERA ERAMATEN

gian "hamar egun lazgarri" pasa ondoren, Iruñeko espetxean sartu zituzten. "Iruñean egon ziren denbora laburrean, sekulakoa izan zen herriarengatik jaso zuten babesa". Garai horretan posiblea zen janaria eta abar sartzea. Denbora gutxi egon ziren Iruñean, aste batzuen buruan Soriako espetxera eraman zituztelako.

Urte gogorrak

"Sorian giroa bero-bero zegoen". Espetxea militarizatua zegoen eta polizia arduratzen zen presoekin zaintzaz. "Euskal presoak batuta eta komunetan antolatuta zeuden, miliak alde batetik, polimiliak bestetik eta autonomoak bestetik", azaldu dute Etxarriko Saretik. Presoen borrokak bi ardatz zituen: "Euskal Herrian bizi zen egoera politikoan eragitea haustura demokratikoaren aukera bultzatuz eta espetxeko bertako bizi baldintza duinak eskuratzea". Poliziarekin zituzten talkak "gogorrak" ziren eta egun batean 50 presok zainak moztu zituzten protestan, "espetxearen barruan egoera danteskoa sortuz, odolez eta oihuz blai". Beste egun batean, komandanteak sukaldako laban bat eskuan hartuta gidatzen zuten Polizia Armadaren konpainia bat galerietara sartu zen zeldaz zelda presoak jipoitzeko; "etxarriar batek konortea galdu zuen buruan emandako kolpe baten ondorioz".

Presondegian bizi zen egoerak isla zuen kanpoan ere. "Etengabeak ziren presoekiko elkartasunez herrietan egiten ziren mobilizazioak eta garai hartakoa da Soriako espetxera egin zen martxa jendetsua". Soriako espetxean egoera "jasanezina" bihurtu zen eta Soriako Udalak preso politikoak handik eramatea eskatu zuen. 1980. urtearen erdialdean euskal presoak Soriatik ateratzen hasi ziren, batzuk Herrera de la Manchara, beste batzuk Burgosera eta beste batzuk Madril inguruko espetxeetara.

1980ko hamarkada

1981. urtean Joxe Arregiren tortura bidezko heriotza eta otsailaren



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





23ko Tejeroren Espainiako Estatu kolpearen saiakeraren oihartzunak "bizi-bizirik" zeudela, euskal presoak Puerto de Santa Mariako espetxe berrira eramaten hasi ziren. "Euskal preso politikoen batasuna eta eragiletza politikoa pitzatzeko

eredu berri bat martxan zegoen: Segurtasun Goreneko Espetxeak, preso politikoei propio zuzenduak". Alemanian ezkerreko mugimendua txikitzeko erabili zuten modelo hartu zuten espetxe horiek sortzeko.

"Puerton euskal presoek ezarri zizkieten bizi baldintzak ikaratzeko modukoak ziren: euskarazko bisiten debekua, kontaketa-ko ilaratan formatu behar izatea, ziegako leihoa burdin xafla batez estalita, zigorrak edozein arrazoigatik...". Denbora tarte oso gutxian bi gose greba luze egin zituzten presoek eta "borrokaren bidez" aurre egin zioten erasoari. "Presoek pulsuari eutsi zioten, agintariak ez ziren mugitu, denboran luzatuko zen borroka aro bati ekin behar zitzaion. Indarrak neurtu eta dosifikatzen ikasi beharra zegoen".

PSOE Espainiako Gobernura iritsi zenean 1982. urtearen amaieran, "itxaropenari atea ireki ziezaioketen keinu batzuk egon ziren". Hurrengo urtean *Egin* eta *Punto y Horako* kazetariei Alcalá, Puerto eta Yeseríaseko espetxeetan sartzeko baimena eman zieten eta presoek hitzak oinarri erreportajeak egiteko aukera izan zuten. Baina PSOEek aurretik zegoen politikarekin jarraitu zuen: "Puertoko Segurtasun Goreneko Espetxe ereduá Herrera de la Manchán jarri zuten". Urte amaieran iritsi ziren euskal presoak Herrerara.

Puertoko "borroken irakaspenak gogoan", beste era batera planteatu zuten presoek Herrera de la Manchán ereduari aurre egiteko ildoak: "Komunikazio grebari ekin zioten". 1984ko hasieran izan zen hori eta urte amaieran presoek eskakizunak jasotzen zituen akordio bat erdieste lortu zuten, borrokari amaiera emateko. "Kolektiboak ezagutu zuten onuragarrietako bat izan zen".

Sakabanaketa

Segurtasun Goreneko Espetxeen moldeak euskal presoek "bata-suna eta eragiletza pitzatzeko" helburuari begira jasotako "porrota" agerian geratu zenean, Espainiako estatuak estrategia berri bat diseinatu zuen, Ajuria Eneako Itunean bildu ziren alderdien babesarekin. Euskal preso politikoen sakabanaketari ekin zioten.

Estrategia berriaren helburua preso kolektibotik bakantzea eta isolatzea zen, bere ingurune afek-

tibo eta politikotik ahalik eta gehien urruntzea, "bere borondatea errazago menperatzeko desioarekin". Sakanako presoak Sevilla, Cartagena, Córdoba, Castelló, Puerto eta abarreko espetxeetara eramán zituzten. "Presoendako ez ezik, senide eta lagunendako eta herriarendako erronka berria zekarren". Komunikazioa eta elkartasuna mantentzeko "kilometroak biderkatzen" ziren, baita arriskua" eta zigor ekonomikoa" ere. "Erronka berriari aurre egiteko formula betikoa izan zen: irudimena, antolaketa, auzolana...". Hortaz, ekimen berriak sortu ziren, esaterako Mirentxin eta Senideak, "gero Etxerat-i bidea ireki diona".

"Presoek beraiek irudimen handiz eta determinazio osoz jokatu behar izan dute urrunketak eta sakabanaketak ezartzen zituen oztipoen gainetik beraien arteko bateratasuna eta eragiletza politikoa mantentzeko". Besteak beste, presoek komunikazio eta mobilizazio moldeak dibertsifikatu zituzten, espetxez espetxe batzarrak sortu zituzten, mintza kidetzak izendatu eta beraien "agenda propioa" Euskal Herriko agendarekin sinkronizatu zuten. "Euskal Preso Politikoen Koletiboaren taupada erreferentzia politikoa saihestezina da Euskal Herrian", adierazi dute Etxarriko Saretik eta Etxeratetik.

1990ko hamarkadaren hasieran, "sakabanaketa eta urrunketaren ankerkeriaren mailak koska bat igo zuen": euskal presoak Iberiar penintsulatik kanpoko uhartera zein Ceuta eta Melillan zeuden espetxeetara eramaten hasi ziren. "Etxarriar bat urte luzez egon zen Balear irletan preso, horrek zekarren senide eta lagunak bisitan joateko zailtasun gehigarriekin".

"Salbuespeneko" politikak beste osagai batzuk dituela esan dute Etxarriko Sarek eta Etxeratek: "1995. urtetik legez zegoen erredentzioak ukatzen hasi zitzaizkien euskal presoek, legean baldintzapeko askatasuna eskuratzeko zehaztuta dauden baldintzak sistematikoki ukatu zitzaizkien, Aznarren gobernuaren

PUERTO PRESOEN BATASUNA ETA ERAGILETZA POLITIKOA PITZATZEKO EREDU BAT IZAN ZEN

ekimenez onartu zen zigorraren epe muga 30 urtetik 40 urtera luzatu zuen". 2006. urtetik aurrera Etxarriko preso baten izena hartu zuen dotrina ezarri zuen Espainiako Auzitegi Gorenak: Parot Dotrina. Lege honen bidez "artifizialki" presoek espetxe zigorrak luzatu zituzten, Europako "nahikoa da" esan zuen arte.

Europatik etorritako aginduak, aldiz, Espainiako Gobernuak "hankapetik pasatzen" dituzte: "Frantzia betetako zigorra kontutan ez hartzeko egin dituzten trikimailuak eta Atristain kasuaren ondorioa izan beharko lukeen torturan oinarritutako zigor epaien errebisioari desobediencia jarrera lotsagabe batekin erantzun izanak erakusten duen bezala". Etxarriko bi presoek "asmatutako frogak medio" beraien kontra auzi berriak ireki zizkieten, "mendeku goseari bidea emateko". Europako irizpideak gauzatu balira, "egun Etxarriko preso guztiak etxerako bidean leudeke".

Osasuna eta heriotza

1981. urtean Juan José Crespo GRAPO erakundeko kidea gose greban hil zen Herreran preso zegoela eta 1985. urteko ekainean Joserra Goikoetxearen heriotzarekin espetxe politikaren hildako presoek "zerrenda beltza" ireki zen, "2020an hil zen Jorge Gonzalez presoaren heriotzarekin 37 hildakoen kopuru beldurgarriraino iritsi arte". Zerrenda beltz horretan Pello Mariñelarena Imaz etxarriarra 1993an Parisko espetxe batean hil zena, osasun arreta faltagatik. Dispersioaren politikaren ondorioz errepideetan hamasei presoek senide eta lagun hil dira.

Osasuna eta bizia galtzeko "mehatxua" erabili izan dira presoak "zigortu eta menderatzeko". Giza Eskubideen aldeko nazioarteko hitzarmenetan jasotako dago gaixotasun larriak dituzten presoekin nola jokatu behar den, hala ere, kartzelan "osasun arreta faltak" egon dira: "Etxarriko preso batek bizia espetxean eman zuen, Bautista Barandallari larriki gaixo egoetatik zegokion askatasuna ukatu eta zigorra luzatu zioten. Gerora Europak indargabetu zuen zorizaiztoko dotrina".

Elkartasuna

Dispersioaren politikaren "atal esanguratsu" bat da presoek bi-

Sakanako etxera eguna!

Apirilak 15 larunbata Etxarri Aranatz

10:00 Dianak herrian zehar. Herria apaindu.

Mural herrikoia, Malkorramendin.

11:30 Material salmenta eta auzatea, plazan.

12:30 Txozna irekiera eta musika, plazan.

13:00 Sakanako herrien arteko desafioa.

15:00 Herri bazkaria, frontoian.

Menua: Entsalada, barazki eta haragi paella, tiramisua izozkiarekin eta kafe eta kopa, 18 euro. Txartelak: Xapatero eta Leku Ona.

18:00 Txozna irekiera.

18:30 Kontzertua: Hogei berriro, euskal kanten bertsioak, plazan. Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.

20:00 Manifestazioa: Etxera!

20:30 Taloak eta DJ Bull, plazan.

23:00 Trikidantz eta DJ Bull, plazan.

sitak egiteko lagun eta herritarrei jarri zaizkien oztipoak. "Hasieran edozein joan zitekeen bisitan tramite arin batzuk beteta. Gerora, Madril eta Parisen baimen zuzena behar zuen bisitari bakoitzak". Madrilen kasuan, gainera, hamar lagunera murriztua egon da preso bisitatu zezaketen zerrenda. "Asko izan dira arrazoi batengatik edo bestearengatik presoak bisitatzeko aukera debekatuta izan duten herritarrek". Etxarri Aranazko Udalak bisita ofizialak antolatu izan zituen, Madriletik komunikazio leiho hori itxi zuten arte.

Mobilizazioak, diru bilketak, txandak txosnetan, zozketak, elkartasun ekimenak, bazkariak, kontzertuak, banderolak, martxak, kontzentrazioak, itxialdiak, baraualdiak, bisitak, eskutitzak, margoketak, bertso saioak eta bertsoak, moziak, bidemozketak... "Burdin harresien aurkako borroka hau irabazbidean jartzeko, indar erabakiorra izan da herritik egin dena, egiten ari dena. Denon artean aurrera egiten ari gara".



**JOXE FLORES
ETA PURI
GALARZA**
PRESO 1979AN
ETA EMAZTEA

"Guretako Puerto ikaragarria zen; oso gogorra"

1978ko urrian atxilotu zuten Joxe Flores lakuntzarra. "Urbasan ginen. Bi zaurituta erori ginen eta beste bi ez". Zaurituak ospitalera eraman zituzten eta handik komandantziara. "Baina ez zegoen prestatuta, bulego bat zen. Informazioa eskatzera etorzen ziren". Hamar egun ondoren Iruñeko kartzela zaharrean sartu zituzten eta urte amaieran Soriara eraman zituzten. "Soriatik 1980an Carabanchelera eta gero denok Puertora. Ez zen inor libratu". Bidaia gogorra zen, baita hango egoera ere. "Kartzela bukatu gabe zegoen" eta erregimena militar "totala" zen. 1981ean Puertotik Iruñera eraman zuten ezkondu behar zelako. "Ez ginen ezkontzera ailegatu", handik gutxira kartzelatik atera zelako. "Amnistia antzeko zerbait etorri zen eta kartzelako zigor guztiak jaitsi ziren". Sei urte egon zen kartzelan.

Puri Galartza iturmendiarrak bi aldetik bizi izan zuen egoera. "Atxilotu zituztenean ez genekien ezer". Lanera zihoan zen eta atera zenean "atea guardia zibilez beteta" zegoen. Atea ireki eta atxilotuta zegoela esan zioten. Altsasuko kuartel zaharrean eraman zuten eta bidean esan zioten Julen anaia atxilotu zutela eta ea Joxe Flores ezagutzen zuen: "Baietz esan, eta nor da? Galdetu zidaten. Nire nobioa". Kuartelean ordu pare bat egon zen eta ondoren etxera eraman zuten. Aste batean bai bestean ere kotxeko gurpilak zulatuta... "Etengabeko bijilantzia". Egun batean atxilotu zuten eta kartzelan lau egun egon zen.

Soriara bisitan joaten ziren bakoitzean "kontrolak eta erregistro oso handiak" zirela gogoan du Galarzak. Carabanchelera lekualdatuko zituztela abisatu zieten, baina Puertora eraman zituztenean prentsagatik enteratu ziren. "Guretako Puerto ikaragarria zen". Ostegun arratsaldean atera, han "orduak eta orduak" itxoi ten egon, katxeo "handiak", egoera latzak... "Zailena egiten zitzaiguna zen bisitak kilometro erdira egiten zirela eta bide osoan bi aldetan guardia zibilak zeudela". Oso zaila zen. "Edozer gauza esaten ziguten, eta gogorra izan zen". Bisita egin eta buelta etxera.

Anaia Iruñean, Sorian, Herrera de la Manchán, Alcalá eta Nanclaresen egon zen. "Oso esperientzia txarra izan zen". Presoendako gogorra izan zen, "eta guretako ere bai".



**KOLDO
FLORES
LAZKOZ**
PRESO 1980AN

"Edozerrengatik isolamenduan sartzen gintuzten"

Lizarragabengoako Koldo Flores 1980ko otsailean atxilotu zuten eta Iruñeko komisaldegira eraman zuten. Hamar egunez inkomunikatuta egon zen, "denok ezagutzen dugun tratua jasota". Ondoren, Madrilerara eraman zuten. Epaitegian deklaratzeari uko zioten, "gure abokatua egon arte". Carabanchelera eraman zuten, "isolamendura", eta hurrengo egunean audientziara eraman zuten eta abokatua erekin deklaratu zuten.

Carabanchel "pasoko" espetxea zen. Ondoren, Soriara eraman zituzten "justu urte horretan ireki zutela" eta euskal preso gehienak bertan zeuden, "PM, M eta autonomoak". Urte bat egon ziren bertan, 1981ean Audientzia Nazionalera eraman zituzten eta epaiketaren ondoren Sorian jarraitu zuten. "Jende asko erori

zen, ehundik gora geundean, eta goizeko hirurak edo laurak ziren eta furgoneta handi batzuetan sartu, autobus antzera, dena itxita, Puertora eraman gintuzten". Ezer jakin gabe. "Denok Puertora".

Gaur egun Puerto I dena estreinatuta zuten. "Han erregimen militar erabatekoa zen. Goizero formatzera, patiora atera eta ilaratan jarri...". Erregimen horren kontra gose grebak egin zituzten. "Edozein arrazoiagatik isolamendura sartzen gintuzten". Carabanchel ez zen handia eta "ehundaka" preso zeuden, "baina bizitza, beno". Puerto dena oso zorrotza zen. "Aldaketa handia izan zen". Gose greban 37 egun egon ziren baina ez zuten ezer lortu, "eta bertako erregimenarekin hautsiko zuten zerbait egiten behar genuela planteatzen hasi ginen". Batzarretan batzuk baietz eta beste batzuk ezetz atera zen, "eta azkenean ez zen egin". 1983ko udan euskal preso gutxi gelditzen ziren Puerton eta "berriz goizaldean ez genekien nora" eraman zituzten; Herrerara. "Ez zen kartzela berezia, bertan sagar ustelak sartzeko erabili zuten. Preso arruntak zeuden, denak atera zituzten eta gu sartzen hasi ziren. Pauso bat gehiago eman zuten". Presoek erabaki zuten indarkeria hura apurtu behar zutela. "Goizetan atea jotzen zutenean eta altxatzeko esaten zutenean ez genien kasurik egiten. Deskolokatuta gelditzen ziren".



**JUAN ANTONIO
LASA ETA JOSE
ANTONIO
GURMINDO**
PRESO 1984AN

"Abantaila zen denak Herreran geundela"

Juan Antonio Lasa eta Jose Antonio Gurmindo olaztiarrak 1984ko azaroan atxilotu zituzten eta ia bost urte egon ziren kartzelan. Herreran pasa zuten zigor gehiena. Aurretik preso egondakoek egindako "borrokari" esker, erregimen zorrotzarekin amaitu eta ez zituzten egoera "gogorrenak" bizi.

Olaztitik Iruñera eraman zituzten eta bertan "egun batzuk" inkomunikatuta egon ziren, "bederatzi edo hamar izango ziren". Madrilerara, kartzelara, eraman aurretik Olaztitik pasa ziren bati "zulo bat erakusteko" eta besteari "elizan elkartasun itxialdi bat egiten ari ziren, eta esan zidaten ateratzeko eskatzeko. Nik esan nien ezetz, eta kuartelera eraman ninduten".

Madrilerara Soriatik pasa zirela gogoan dute, baina ez kartzelatik, errepidetik:

"Soriako gasolindegi batean gelditu ginen". Jende gehiagoarekin zihoazen ziren, baina ez dute gogoan elkarrekin zihoazen.

Lehenengo Carabanchelen egon ziren "hilabete eta erdi inguru" eta gero Herrerara eraman zituzten. "Zortea izan genuen iritsi ginenean dagoeneko borroka egin zutelako". Ez zituzten "garai gogorrenak" bizi. Herreran elkarrekin egon ziren, "kolektibo ia guztia bezala. Preso politiko guztiak geunden han, ia berrehun bat".

Alcalán ere denak elkar ezagutzen zutela esan dute: "Sartzen ginenean agurtzera etortzen ziren". Hori zen haien "abantaila", elkarrekin zeudela, "gure artean elkartasuna zegoela". Presondegian elkartasuna zegoela konturatu zirenean, "pentsatu zuten ezin zela horrela izan" eta lekualdatzen zituzten. "Modulo batek bestera".

Euskara ikasten ere aritzen ziren, "hamar bat lagun egongo ginen, eta konturatzen zirenean euskara ikasten ari ginela, irakaslea lekualdatzen zuten".

1988an Gurmindo Langraitzera lekualdatu zuten eta bertan amaitu zuen zigorra eta Lasak Herreran bete zuen, "bertan izan nuen familia, hainbestetan etortzen zenez bisitan, haurra aurreratu zelako".



**JUANITO
NAZABAL
AUZMENDI**
PRESOA
1979AN

"Dispersioaren okerrena barruko banaketa zen"

1979an atxilotu zuten Juanito Nazabal etxarriarra, tartean bere anaia Bixenterekin. Iruñeko kartzelan sartu zuten eta "palizak" jaso ondoren espetxe zaharra "zerua" zela iruditzen zitzaion. "Ez dakit zenbat hilabete pasa genituen". Elkarrekin zeuden eta komuna "gure txokoa" zela esan du. "Elkartasuna ezinbestekoa eta beharrezkoa da, horri esker gaude hemen". Garai horretan kanpotik janaria sar zezaketen, "eta denetarik eramaten ziguten". Ondoren Soriara eraman zituzten eta bertan "gehienak Euskal Herrikoak" zirela du gogoan. Epaiketak zituztenean Carabanchelera eramaten zituzten, eta ondoren berriz Soriara. "Pelikula bat egin daiteke bertako bizipenekin".

Soriatik Puertora eraman zuten Nazabal, "kartzela okerrena, krudelena". Presoaren

nortasuna apurtzeko eta suntsitzeko espetxe bat zela dio etxarriarrak. "Ez ginen ados jarri borroka egiteko, gose grebak egiten genituen eta ezer ez". Herrerara eraman zituztenean "hemen ez dugu hanka sartzerik izan behar" eta erregimena "lehertu" behar zutela esan zuten. "Adostasun batera irtsi ginen".

Sakabanaketa handia bizi izan zuen Nazabalek ere eta Castellónera eraman zuten eta bere anaia Jerezera. "Beti egon gara lehen graduan, orduan espetxearen arabera ordutegi bat edo beste zegoen". Dispersioaren "okerrena" espetxearen barruan ere banatuta zeudela zen, bakoitzak modulu batean. "Gainera, toki batera eramaten zituztenean jakinarazi behar zenien funtzionarioei zein zinen eta gutxieneko gauza batzuk. Denbora guztia zein zaren esaten ari zara". Suntsitzeko beste estrategia bat zen. "Horrek niri amorrua ematen zidan". Bederatzi edo hamaika urte egon zen bertan. "Azkenean ezagutzen zaituzte eta harremanak egiten dituzu".

Bi urte gelditzen zitzaizkionean Iruñeko espetxera eraman zuten aita hil zitzaiolako. "Zortea izan nuen. Nik pentsatzen nuen Castellónera bueltatuko nindutela. Suposatzen zen egun batzuetarako bakarrik etortzen nintzela, baina hemen gelditzeko arazorik ez zegoela ikusi zuten". Iruñean Mahai Nazionaleko kideekin, intsumisoekin eta Itoitzeko solidarioekin egon zen. Alde "ederra" zegoen, baita familiarendako ere.



IGOR ARTIEDA GALDEANO
BISITAK /
MIRENTXIN
GIDARIAK

"Bisita batera joateak karga handiak zituen"

Dispersioak nola eragin du?

Dispersioa lagun eta senideoi jarri diguten kondena bat izan da. Alde askotatik eragin digu, ekonomikoki eta psikologikoki, gehienbat. Puertora bidaia bat antolatzea ez da esatea "ala, banoa". Bisita batera joateak baditu karga handiak: errepidean ordu asko dira horrek dakartzan arriskuekin, bidaia planifikatu behar duzu, espetxera deitu eta bisita erreserbatu, norakoaren arabera lanean jai eguna hartu eta lotarako tokia hartu, lanetik atera eta zuzenean zazpi orduko bidaia hasi; presoarentzat paketea prestatu, bidaiarako otorduak eta eguraldiari erreparatu. Asko nimiñoak dira, baina denak batuta zama handia da. Dena 40 minutuko bisita baterako.

Bi estatuetan egin dituzu bisitak, sentsazioak?

Askotariko bizipenak ditut, onak eta txarrak. Gehienbat egin ditudan harremanak ditut gogoan. Gainontzeko senideekin eta bidaiari zoazela kafea hartzera edo bazkaltzera geratzen zaren tabernako langileekin. Bisitatik gehienetan presoak zu animatzen zintuen, alderantziz izan beharko zenean. Hori ere dut gogoan. Garai batean elkartasun komiteak zeuden eta senide zein lagunek harreara egiten ziguten. Horietako talde bat ezagutu genuen Kordoban eta kide baten tabernan inoiz jan ditudan txerri hankarik gozoenak jan ditut. Haraino joan eta horrelako jendea topatzea izugarria zen.

Mirentxin-en zein balorazio egiten duzu?

Mirentxin Gidariak bi aldeetatik ezagutu ditut. Gidaria eta bidaiaria izan naiz. Preso askorentzat bisitak bermatu izan ditu. Hortik bere leloa: *Preso bat bera ere ez bisitarik gabe*. Egoera horri irtenbidea eman zioten. Konpromiso handia eskatzen zuen asteburuan furgona hartu eta senideei ahalik eta ardua gutxien eragiten saiatzen ginen, bidaia ahalik eta lasaien egin zezaten eta bisitaren gorabehera ardua izan zezaten bakarrik. Gasolioa, eguraldiaren iragarpena, hotela erreserbatu eta askotan psikologoarena egin, horiek guztiak, gidarien ardurak ziren. Senideentzat ekonomikoki aurrezpen bat ere bat zen. Militante bezala gogobetetasun handia zen. Senideek asko eskertzen zuten. Senide bezala bidaia-tu dut, eta gauza bera diot.



GARAZI BARANDALLA CAMPOSX
MOTXILADUN
UMEA

"Txikitako oroitzapen gazi-gozaok ditut"

Txikitako zein oroitzapen dituzu?

Aita nik urte eta erdi nuenean atxilotu zuten eta dispersio politika zela medio, espetxe asko ezagutu ditut: Carabanchel, Salamanca, Alcazar de San Juan, Meco, Torrero edo Zuera. Azken urteak Iruñean igaro zituen. Oroitzapen gazi-gozaok dira. Bidaia luzeak, asteburuko aisialdia alboratu behar edo aitona bidaiarako egiten zizkidan ogitarteko goxoak oroitzen ditut. Amaren hutsunea ere oso gogoan dut, bis a bis zuenean aitona amonekin uzten ninduelako, eta ikaragarri ongi zaintzen ninduten arren, frustatuta egoten nintzen, ume bat nintzelako eta amaren beharra nuelako. Dena ez da txarra: jende asko eta elkartasuna oso gertutik ezagutu ditut eta bidaia luze baten ostein aita ikusteko, ukitzeko eta aita duzula sentitzeko aukerak zoragarriak dira.

Aita Euskal Herriko espetxean egongo balitz?

Egoera asko hobetuko litzateke: denbora gehiago edukiko nuke asteburuko aisialdirako, etxeko lanak egiteko, lagunekin egiteko, amarekin igarotzeko... Aita bisitatzeaz gain gauza desberdinak egiteko denbora izango nukeen eta asteburua ez litzateke soilik bidaia luze bat egin 40 minutuko bisita batera edo bi orduko bis a bisetara murriztuko. Gastu ekonomikoa eta milaka kilometroko bidaia bat egitearen arriskuak ere asko murriztuko litzateke.

Espetxea, dispersatuta eta gaixorik.

Gaixotasuna oso momentu gogorra izan zen. Ama Zaragozara bizitzera joan zen gertu egoteko eta nik Etxarrin geratu behar izan nuen ikasketekin jarraitzeko. Oso gaizki pasa genuen. Aita oso gaixorik egon zen eta urrunetik bizitzea eta espetxe politikak ezarritako arauak jarraitzea oso gogorra izan zen: ezin genuen nahi bezain beste ikusi, tarte oso konkretuak genituen, beti funtzionarioen begiradapean geunden, intimitaterik gabe. Behin baino gehiagotan aita oso larri utzi behar izaten genuen ospitaleko ziegan, inguratuta, preso bat zela ahaztu ez zekion. Bereziki gogorra zen. Inpotentzia oso handia zen. Euskal Herri osoak erakutsitako elkartasuna eta babes aziparratu nahi nituzke une latz horietan oso lagungarri izan baitziren familiarentzat eta aitarentzat. Beti egongo gara oso eskertuta eta zorretan.



ALAIN BERASTEGI MARIÑELARENA
DISPERTSATUA
ETA ILOBA

"Osabaren oroitzapenak zetozen burura"

Osaba Pello Frantziako espetxe batean hil zen, nolako oroitzapenak dituzu?

13 urte neuzkan, eta espetxera eraman arretetik, berak nola bere lagunekin eramaten ninduen hara eta hona. Horiek ditut bere oroimen ederrenak. Sekula ahazten ez diren horiek. Beste garai batzuk ziren. Hiltzen utzi zuten garai horietan futbito txapelketa bat jokatzeko ari nintzen eta zendu zen egunean finala genuela larunbat hartan. Lagunak aitona eratera etorri zitzaizkidan bila, gurasoak Parisen baitziren. Nahiago izan nuen etxekoekin geratu eta osaba Pelloren kontuak entzuten eta esaten aritu. Gorputzak hala eskatu zidan. Bueltarik ez duten gauza hauekin bat husten denean nolabait hobeki geratzen baita. Ekarri zuten luze jo zuen, eta motz ere egin zitaidan. Gogoan dut hilkutzarekin amatxo

zatorrela Paristik. Etzegarate jendez gainezka zegoen harrera egiteko eta amatxok berarekin igotzeko esan eta Etxarrira arte osabaren ondoan etorri nintzen. Betirako geratzen diren oroitzapen horietako bat. **Familiak nola bizi zuen dispersioaren zama eta senidea kartzelan galdu izana?**

Osabarena gogorra izan zen. Ez bakarrik espetxealdia. Osasun arazoak zituen eta denok ondo dakigun bezala hiltzen utzi zuten. Garai gogorak familia eta inguruarentzat. Azken unera arte borrokatu bazuen ere gorputzak nahiko esaten duenean eta laguntza baino traba duzunean, hau da emaitza. Zure anaia, osaba edo dena delakoa hiltzen uzten dutenean eta kontziente zarenean ezin duzula deus egin. Horrekin bizitzen ikasi behar da. Kanpoan balego edo behar zituen laguntza jaso izan balitu, gurekin egongo zen. **Zeuk ere bizi izan zenuen dispersioa.**

Zorixarrez dispersiotik pasatutako naiz eta gehien sufritzen duzuna zu bisitatze-ara etortzen eta joaten direnean da: bidaia nola joan den, etxera iritsi ote diren... Han barruan zenbaki bat baino ez zara. Osaba Pelloren oroitzapenak etortzen zitzaizkidan burura, zer pasatu ote zuen garai horietan. La Santén egon zen gehien, espetxe zahar eta hezetasunez beteta. Roberto Sainz Olmos txabolokidea ni atera eta lau hilabetera zendu zen bertan bihotzeko batek jota.



XOCHITL KARASATORRE MENDEZ
ETXERAT
ETA MOTXILADUN
UMEA

"Ez dira onurak, presoan eskubideak dira"

Motxiladun Umea izatetik, dispersioarekin bukatzeko borrokan sartuta, halabeharrez.

Bai. Zazpi urte nituenean Motxiladun Umea bihurtu nintzen, aita espetxeratu zutenean. Gaur egun ez naiz umea, eta motxila txikiagoa daukat aita Iruñean dagoelako, baina Frantziako eta Espainiako estatuko espetxe asko ezagutu ditut. Senide izate hutsagatik kondena paraleloa bete izan dugu. 34 urte luzez presoak sakabanatuta egon dira, eta horrek karga fisiko, psikologiko eta ekonomikoki izugarria ekarri izan digu. Astebururo istripu bat jasateko biktima potentzialak izan gara.

Nolako lana egin du Etxeratek?

Eginkizun nagusia preso eta iheslarien senide eta lagunei asistentzia, aholkularitza eta laguntza eskaintzea da, egoera mingarri honek sortzen dituen ondorioak txikitzeko

eta leuntzeko tresnak eskainiz. Aldi berean, eskubide urraketen aurrean salaketa eta aldarrikapena uztartzen ditu. Duela gutxi arte, dispersioarekin amaitzea izan da salaketa eta aldarrikapen hauen ardatza, hori baitzen amets gaiztoa. Gaur egun, sakabanaketaren amaieraren atarian gaude, baina presoan eskubideak urratuak izaten jarraitzen dute. Haien bide penitentiario-juridikoa egiteko oztopoak etengabeak dira, eta hori da orain helburua: euskal presoei espetxe politika arrunta aplikatzea eta etxeratze bidean oztopo gehiagorik ez jartzea, ez baitira presoentzat onurak, haien eskubideak, letra larriz, dira. Gaur egun, ia preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan daude. Duela hiru urte egoera hau sinesgaitza zen.

Hemendik aurrerako erronka?

Preso guztiak etxera ekartzea da. Dagozkien eskubideak behingoz errespetatuz mende-ku eta gorrotoaren ginetik espetxe politika arrunta aplikatuz. Ikusten ari gara espetxe politikak fiskaltzak eta justizia auzitegiek sortutako arazo berriei aurre egin behar diela, botere politiko bihurtu baitira. Hamabi urte baino gehiago igaro dira ETAK jarduera armatuari amaiera emateko erabakia hartu zuenetik, eta lau baino gehiago bere burua desegitea erabaki zuenetik. Nahikoa denbora jarrerak eta legediak bakearen, bizikidetzaren eta konponbidearen zerbitzura jartzeko.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Emakume maitea

Aurreko astean albiste gogorra jaso nuen: hurbileko emakume batek bizia kendu zuen. Emakumearen egunaren ondoren, zehazki. Ni neu emakumea naiz. Ama eta ahizpa emakumeak ditut, nire eguneroko erlazioen erdia baino gehiago bezala. Bera ere, emakumea zen. Egunerokotasunean leku batengatik borrokatzen duen hainbestetako bat.

Nire inguruko emakumeen istorioa entzutea gustuko dut: gehiegizko mina eta indarra, jasan eta eman beharra, baita nekea ere. Emakumea izanda, irizpen handiagoa jasotzen dugu orokorrean. Baita besteei gorputzez eta arimaz emateko presio nabariago bat ere. Ala hau bete ezean, zigorra jasotzeko. Gaixo egonez gero, sinesgaiztasun handiagoa. Bortxatuak izan bagara, ordea, zalantza eta errua agertzen dira beti.

Isildu, eutsi eta ardura hartzea tokatzen zaigu. Egiten dugunaren eta egiten digutenaren errua jaso. Fisikoki ala emozionalki gaizki tratatuak izanda ere, sentituko dugun gauza bakarra beldurra da. Izan ere, seguru sentitzeko, borroka egin beharko dugu, kendu diguten lekua irabazteko. Okupatzeko eskubidea izan beharko genukeen leku hori. Aurrera egin eta aske izaten saiatu nahi badugu, frustrazioa, oztopo guztietatik libratu nahian, gainontzekoek guri

buruzko iritzia ematen dutelarik. Isildu, eutsi eta zainketan jarraitu.

Gizarteak ez digu bidea errazten. Horregatik bada, hemen jarraitu behar dugu, ahotsa jarriz eta gure espazioa eskatuz. Guregatik, zuregatik. Zure bukaerainoko borrokagatik. Nik hemen jarraitzea erabaki dut eta zu ere, emakume, geratzea nahi dut. Zuregatik, guztiongatik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehenez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

AHTaren mitoak

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

30 urte betetzen ditu aurten AHTaren aurkaritzak Euskal Herrian. 1993. urtean CADEK Iparraldean eta AHTren Aurkako Asanbladak Hegoaldean ekin zioten makroazpiegitura suntsitzailer honen aurkako borrokari. Urte luze hauetan AHTaren inguruan gezur eta mito ugari zabaldu dituzte agintaritzan dauden politikariek eta hauen aldeko komunikabideek: suspertze ekonomikoaren mitoak, merkantziak edo salgaiak garraiatzearen mitoak, azpiegitura ekologiko eta iraunkorraren mitoak... Eta azpiegitura hau gauzatuko ez balitz halabarharrez etorriko litzaigukeen ustezko

hondamendia: atzean gelditzearena, lurraldearen garapenean moteltzea, progresioa etetea, modernitatearen aroa galtzea... Eta bestaldean jartzen ginenen aurkako irainak: atzerakoiak, trogloditak, ekologista ameslariak, flipatuak, errealitateki kanpo gaudela... 2022an ADIFek, espainiar Estatuan tren azpiegituren ardura duenak onartu zuen Euskal Y-ak ez zuela salgairik eramanen. Euskal Y-ak ez, Estatuko beste AHT lineek eramaten ez duten bezala, Katalunia eta Pirinioen arteko zati txiki batean izan ezik.

Orduan, AHTa egiteko arrazoi nagusietako bat erori

ondoren gure politikariek atzera egin dute? Gezur batean harrapatu ondoren, barkamenik eskatu dute? Azpiegituraren birmoldaketa bat planteatu dute krisi ekosozial baten atarian gaudela? Ez ba.

Aste honetan berean, gure Euskal Herri zatikatu hau gobernatzen diguten hiru lehendakariak bilera egin dute zertarako eta AHTaren ezinbestekotasunaz aritzeko eta gaur egungo egoera zalantzarri eta zaurgarriaren aurrean betiko politikekin jarraitzeko. Hau da, AHTaren beharra aldarrikatzeko. AHT gabe hondamendia helduko zaigulako, ekonomia suspertzeko ezinbestekoa delako, ehunka kamioi bideberrietatik aterako dituelako. Mitoak, mitoak, gezurrak, gezurrak...

GUTUNA

Josu Zabala: herriak behar du egia

ARITZ IGOA GOÑI ETA AMAIA ERDOZIA ANSO

Gaur hogeita sei urte, Josu Zabala Salegi etxarriaren gorpua Punta Mendata parajearen agertu zen, bularrean tiro bat zuela. Geroztik jakin izan dugun gauza bakarra da Institutio ezberdinek zabaldu zuten suizidioaren bertsioak diren frogen azterketa. Josuren EGIA ezkutuan dago.

Egia jakiteko eskubidea nazioarteko zuzenbidean dagoen eskubidea da. Eskubide horren titularrak, alde batetik, Giza eskubideen urraketa

pairatu duten herritarrek dira, eta bestetik, giza eskubideen urraketa horien biktima izan diren kolektibitateak, HERRIA. Eskubide horren zorduna Estatua da. Estatuaren gain dagoen ardura da gertatu diren giza eskubideen urraketa ikertzeko eta beraien ondorioak aitortu eta erreparatzeko nahikoa bitartekoak bideratzea. Honetan ere, Espainiako Estatuak bere ardurari izkin egin nahi dio. Gatazka politiko bat dagoela ez du aitortu nahi; gatazka horretan Estatuak berak modu bidegabe eta legez kanpo jokatzu herritarren eskubideak urratu dituela ez du aitortu nahi; eta gainera, gertatutako guztiaren ardura besteei leporatu nahi die.

Tamalez, Josurena ez da herri honi ukatzen zaion egia bakarra. Hilak, zaurituak, torturatuak, bahituak, kolpatuak izan diren milaka eta milaka herritarren egia ukatzen zaigu. Finean, ukatu nahi dugutena da hemen izaera politikoa duen gatazka bat dagoela eta gatazka horretan gertatutako eskubide urraketa guztien egia jakiteko, beraien ondorioak aitortu eta erreparatzeko bitartekoak jarri behar direla. Eta Estatuari dagokiola aitortza hori egitea eta bitarteko horiek jartzea. Estatuari eta ez beste inori.

Egiaren bidean igandean Etxarri Aranatzaren eginen dugun ekitaldian parte hartzea animatzen zaituztegu.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Udal ordezkariak Maria Chivite Navascues presidentearen azalpenak entzuten. UTZITAKOIA

Legegintzaldiko azken urteko argilunak agerian

Foru administrazioaren Lehendakari Maria Chivite Navascuesek bere gobernuaren urteko jardunaren berri eman zien alkateei Irurtzunen. EH Bilduko ordezkariak tokiko maparen garapena eta bestelako gabezien berri eman zioten

SAKANA

Aurreko urteetan bezala, Nafarroako Gobernuaren eta Tokiko Erakundearen arteko Elkarrizketaren III. Konferentziatik Maria Chivite Navascues presidentea Nafarroako eskualde guztietatik pasako da heldu den egunetan. Chivitek ekimena gobernuak gobernantzarekiko duen konpromisoaren baitan kokatu

zuen, eta udalerrriak eta kontzejak "ezinbesteko parte" direla gaineratu zuen. "Baterako gobernantza horrek eskatzen du alderdi bakoitzak bere erantzukizuna onartzeaz aparte, batzuen eta besteen arteko elkarrizketaren mekanismoak ezartzea", gehitu zuen.

Bilkura horietan Chivitek gobernuak egindako lana eta egin

ez duena azaldu eta tokiko erakundearen eskaerak jasotzeko baliatzen du. Lehen geldialdia Irurtzunen egin zuen hilaren 17an eta Larraungo eta Sakana-ko alkateekin elkartu zen. Chiviterekin batera, Lurralde Kohe-siorako kontseilari Bernardo Ziriza eta Toki Administrazioako zuzendari nagusia den Jesus Mari Rodriguez izan ziren.

Lorpenak

Lehendakariak Irurtzunen toki finantzaketarako eredu berria ezarri izana nabarmendu zuen. "Zuzenagoa, solidarioagoa eta nahikoa da". Azaldu zuenez, Larraun eta Sakana toki erakundeek aukera eman die finantzaketa batz besterik %45 gehitzeko, esate baterako, Altsasuko baliabideak %38 hazi dira (3,2 milioira bitarte), Irurtzunen igoera %46koa izan da (1,15 milioira bitarte) eta Uharte Arakilen %40 (360.000 eurora bitarte).

Bestetik, Hezkuntzaren aldeko apustua mugari garrantzitsua izan dela gaineratu zuen, eta Sakana Lanbide Heziketa institutuaren "asmo handiko eskaintza" azpimarratu zuen, "batez ere, zuen errealitate soziolaboralera hurbiltzen dena, industria metalurgikoan garrantzi berezia izanik". Hobekuntzen artean, heziketa zikloak 10 izatea eta Altsasu Nafarroan LH Dual Intentsiboa estreinatzeak hautatzea aipatu ditu. Horri gehitzen zaizkio, baita ere, seihileko honetarako programaturiko enplegurako 17 prestakuntza ikastaro, 255 plazarekin. Azpiegiturei dagokionez, azaldu zuen Irurtzunge saihebidetza trafikora aurki irekiko dela.

Etxebizitzari dagokionez, birgaitze energetikorako Biziberri plana; horren esparruan, proiektuak bultzatzeko aholkularitza jasotzen dute 17 udalerririk. Garraioari dagokionean, Gas-teiz-Iruña ibilbide berriak nabarmendu zituen, laster abian jarriko direnak. Horretaz aparte, Euskarabideak euskararen erabilera soziala zabaltzeko garatutako programak aipatu zituen. Eta, azkenik, iraunkortasunari buruzko bi proiektu aipatu zituen: Etxarriko pasabide

ekologikoa eta Sakana konpostaje planta berria.

Gabeziak

EH Bilduko alkateek Chiviteri adierazi zioten, batetik, "borondate politikorik" ez duela izan zenbait gaitan, eta horien artean tokiko mapa garatzeko beharra nabarmendu zuten. "Tokiko erakundearen eta, azken batean, lurraldearen egituratze eta kohesio elementutzat" dute mapa koalizio-ko alkateendako. Haien iritziz, "Gobernuak blokeatu egin du Foru Legearen garapena eta, horrekin, tokiko sarearen arazoa enkistatu du, tokiko erakundeak betiko behin-behinekotasun egoeran jarraitzea behartuz, eskualdeak egituratu gabe, etorkizuneko erronkei aurre egitea zailtzen duen egitura zaharkitu batekin", kritikatu zuten.

Bestetik, EH Bilduko alkateek "hiriarteko garraioa edo alokairuko etxebizitza publikoaren eskasia" nabarmendu zituzten. Horiek despopulazioa areagotzen duten faktoreak direla azaldu zioten lehendakariari. Horretaz aparte, ibarrean ezarri eta proiektatu diren azpiegitura handiak, lurraldea egituratzen ez duten eta inpaktu ekologiko handia sortzen duten proiektuen berri eman zioten: Abiadura Handiko Trena, goi tentsioko lineak edo Aralarko gasbidea. Gaineratu zuten, osasun arloan Lehen Arretan "ez da behar adina aurreratatu", zehaztu zuten EH Bilduko alkateek.

"KRISI SEGIDA HONETAN BIZILAGUNEN BIZIMODUARI EUSTEAGATIK, MILA ESKER UDALAK"

ATE IREKIAK

Goierri Campusa

ORDIZIA

INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA

Martxoak 25, 11:00

Eman izena

www.mondragon.edu/ate-irekiak

Hogei urte Satrustegi gabe

Astelehenean 20 urte beteko dira Jose Mari Satrustegi Zubeldia hil zela. Etnografoa, idazlea, itzultzailea, euskararen aldeko langile, euskaltzain oso eta apaiza izan zen. Mende erdian euskarak Nafarroan izandako erreferenteetako bat izan zen

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Luisa eta Pedro Miguelen semea, Arruazuko Kuartelea etxean jaio zen 1930eko azaroaren 20an. Sei anaia-arrebaren artean zaharrena izan zen. Txikia zela azal zurikoa eta ile horia izanda, Iduzki izen txikia jarri zioten. Iruñeko apaizgaitegian 12 urterekin sartu zen. Irakasleetako bat Jose Goñi Gaztanbide ikertzaile ezaguna izan zuen. 1955ean eman zuen meza berria Arruazun. Madozko parrokian bi hilabete eta erdi egin eta berehala izendatu zuten Luzaideko bikario eta bederatzi urte geroago Urdiaingo apaiz. Burundako herrian hartuko zuen erretiroa 1995ean, bertan 31 urte eman ondoren.

Erretiratzean, bizitzan pilatu zitzaizkion materialak aztertu, moldatu eta argitaratzeko asmotan Arruazura bueltatu zen, Milikonea etxera. 72 urtetan, burua argi, lanerako betiko sasoi betean eta aurrera ateratzeko esku bete proiektu zituela, 2003ko martxoaren lehen Euskaltzaindiak Hernanin egindako XIII. Barne Jardunaldietatik itzultitakoan, ustekabeko garun infartuak jo eta hilabete bat eskas geroago, martxoaren 27an, Iruñeko Bideko Ama ospitalean hil zen. Ospitalean ez zegoen apaiz euskaldunik, halaberharren egun hartan erietxean apaiz euskaldun adiskide bat suertatu zen eta hark eman zion oliadura euskaraz.

Euskaltzain

Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1957ko garilaren 26an, eta euskaltzain oso 1963ko maiatzaren 18an. 2. aukia eman zioten, aurretik Orixek bete zuena. Luzaideko apaiz zela, herrian bertan, Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia eman zuen, *Luzaideko Otoitz Ttipiak* izenburua zuena,



Jose Mari Satrustegi Zubeldia etxeko liburutegian. ARTXIBOA

1963ko irailaren 16an. 1978tik 1992ra, 14 urtez, Euskaltzaindiko idazkaria izan zen. 1979an sortu zenetik 1997ra, 18 urtez akademiako Nafarroako ordezkaria izan zen.

Euskaltzain zela erakundeak hartutako erabaki garrantzitsuetan parte hartu zuen. Euskara

estandarra edo batua egiteko kongresua egin zen Arantzazun 1968an. Satrustegi kongresuko moderatzailea izan zen.

Euskaltzaindiaren hainbat batzordetan aritu zen, baina Onomastika batzordean nabarmendu zen. Horretan pertsonen izenen arloa izan zuen aztergai

nagusi. *Euskal izendegiaren* hiru argitaraldi prestatu zituen (1972, 1977 eta 1983) eta arrakasta handia izan zuen. Makina bat euskal izen lan horien bidez egin ziren ezagun eta jendeak seme-alabendako izena argitalpen horretatik aukeratzen hasi zen. 2001ekoak arbazuarrak egindako lana izan zuen oinarri. Hiztegi Batuari Nafarroako euskaratik ekarpenak egin zizkion.

Jardun euskaltzalea

Txikitatik izan zuen paper guztiak jaso eta biltzeko joera. Bestetik, bere osaba Joakin Satrustegi kaputxino abertzale eta euskaltzalea izan zen Jose Mari euskaragatik kezka azaldu eta hizkuntza lantzerantz bulkatu zuena. Satrustegiren biziaren zergatia eta oinarria bihurtuko zuen hizkuntza gerora. Luzaideko egonaldiak Euskal Herriaren ikuspegi osoa eman zion, baita Ipar Euskal Herriko hainbat apaiz eta kultur eragilerekin harremana hasteko aukera ere.

Arbazuarra goi mailako kultur gizona zen. Autodidakta izan zen, bere kabuz jaso zuen euskarari eta euskal munduari buruzko jakituria zabala. Hori hiru bideetatik lortu zuen: bere jarduera pertsonalaren fruitu, kultura eta ikerketa arloko adituekin izandako harreman estuei esker (M. Tovar, J. M. Barandiaran, J. Caro Baroja, K. Mitxelena...) eta itzal handiko atzerriko zenbait hizkuntzalari eta euskaltzalarekin ere izandako harreman estuei esker. Antropologia, etnografia, historia eta beste landu zituen.

Luzaidean zegoela idatzi zituen bere aurreneko artikuluak. Miguel Javier Urmenetaren eraginez eta Pedro Diez de Ultzurrunen zuzendaritzapean, Nafarroako Foru Diputazioaren Principe de Viana erakundeak, 1957an, Sección del Fomento del vascuence saila sortu zuen. Arbazuar gaztea hasieratik inguruan ibili zen. Lehen egitekoetako bat izan zen herrietan euskaraz ongi zekiten hurrei saria ematea. Erakundeak *Principe de Viana* euskarazko aldizkaria argitaratu zuen (7.000 etxetara iristen zen) eta Satrustegiren sinadura izan zuten makina bat artikuluak. Zenbatu ezinak dira ere Satrustegik han eta hemen hainbat gairen inguruan emandako hitzaldiak.

Bere ikerketa lanaren emaitza izan zen euskarazko makina bat testu zahar eskuratzea, baita

makina bat euskal hiztun grabatzea ere. Horiiek, besteak beste, *Egan*, *Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegiaren urtekaria*, *Euskera* argitalpenetan eman zituen. Arbazuarrak sustatuta, Nafarroako Foru Diputazioak 1969an *Cuadernos de Etnologia y Etnografía* eta *Fontes Linguae Vasconum*, *Studia* eta *Documenta* aldizkariak sortu zituen. Azken horren argitalpen kontseiluko kide izan zen hasieratik eta zuzendari kargua 1988an hartu zuen, hil arte. Haietan ere, makina bat artikulu sinatuko zituen. Fontes nazioarteko hainbat uni-bertsitate, kultura gune eta iker-tzailerendako, Nafarroaren eta bere hizkuntza zahararen erakusleho bilakatu ziren. Izan ere, Satrustegik atzerrian euskal kultura eta hizkuntza zabaltzeko ahalegina egin zuen beti. Horrek atzerriko hainbat herrialde bisitatzera eraman zuen.

Satrustegiren atean hainbat gurasok ateak joko zuten. Haien seme-alabendako euskarazko irakaskuntza nahi zuten guraso gazte haiei aholkua eman, bitartekari eta laguntzaile izan zen arbazuarra. Ikastolen sorreran eragile. Idazlea ere izan zen. Etnografia, etnologia eta euskara kontuez aparte, *Ekaitza* eleberria eta zenbait biografia idatzi zituen, edo Lewis Carrolen *Alicia* itzuli. Ipuin eta elezahar bilduma mordo bat ere argitaratu zituen. Bere ikerketa lanen emaitza gisa, *Ordenanzas de la Universidad del Valle de Burunda* argitaratu zuen, ibarreko sei udalek babestuta 1982an. **GUAIXE** aldizkariako sustatzaileendako ere atek zabalik izan zituen. Hilabetekarian argitaratutako artikuluak bildumak *Sakanerri barrena* (1999) liburuan ikusi zuen argia.

Udako Euskal Unibertsitateak 1977an Iruñean egin zuen lehen ekitaldiko sarrera-hitzaldian hizlari gonbidatua izan zen arbazuarra. *Nafarroa*, *Euskaltzaindia* eta *UEU* izenburua izan zuen hitzaldiak. AEK-k antolatutako Korrikako lehen edizioan Remigio Mendibururen lekukoa estreinakoz eraman zuena Satrustegi izan zen. Nafar Ateneoaren sortzaileetako kide, hasieratik Euskal Hizkuntza eta Kultura saila ezartzea lortu zuen. Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Euskara kontseiluetako kide, bietatik atera zen euskarazko irratie lizentziak ez emateagatik. Hil aurretik aitortzak jaso zuen.

Gasbiderako "hausnarketa eta zentzu" eske

Larraungo eta Arakilgo alkateek horixe eskatu zuten Nafarroako Parlamentuan. "Teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den alternatiba bat egonda, Nafarroako Gobernuak ez luke zertan Aralar zeharkatzen duen proiektu batean tematu"

ARAKIL

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean Larraungo eta Arakilgo alkate Mikel Uharte Martija eta Oihana Olaberria Jaka eta Mikel Martinez de Zuazo ingeniaria egon ziren astear-tean. Alkateek jakinarazi zuten, "auzibidea bukatu ondoren lanen aldeko lizentzia ematera behar-tu gaituzte. Baina dituen baldin-tzekin ezinezkoa da betetzea". Olaberriak jakinarazi zuenez, gaur egun gasbideko lanak gel-dirik daude epaile batek hala agindu duelako.

Olaberriak azaldu zuenez, "administrazio prozedura agortuta dago, obrek egun gutxi barru hasteko bidea izanen dute". 15 egun aipatu zituen. "Obrak hasiko dira, eta beldur naiz ez ote garen inoiz bukatzen ez den bukle horietako batean sartuko. Obra fiskalizatuko dugu, eta ez dugu inongo zalantzarik izango proiektua berriro geldiarazteko orduan. Plazaolako bide berdeko alternatiba egonda, sarraskia gelditzeko garaiz gabilta. Borondate politiko kontua besterik ez da. Aralarrek merezi du".

Argudioak

Olaberriak azaldu zuenez, "aurrekaririk ez duen energia eta



Oihana Olaberria Jaka, Mikel Uharte Martija eta Mikel Martinez de Zuazo. UTZITAKOA

ingurumen krisi bat bizitzen ari garen honetan, eredu energetikoa zalantzan jartzen ari den honetan, argi dago apustua berriztagarriek izan beharko luketela, baina gobernuari Aralar Kontserbazio Bereziko Eremua zeharkatzen duen gasbide bat planteatzea otu zaio". Horregatik, esandakoen eta ekintzen arteko "koherentzia" eskatu zuen.

Lekunberrin industria energia komunitatea sortzekotan dabilzala gogorarazi zuen Olaberriak. "Horren atzean Aralar suntsituko duen gasbidea dago. Aurrera

industria energia komunitate, baina dagoeneko humanizatuta dagoen trazatu batetik eraman daiteke gasbidea, Plazaolako Bide Berdeko bidetik". Arakilgo alkateak gogorarazi zuen bide berdeak beste zerbitzu batzuk ere hartzen dituela, esaterako, Iribasetik Irurtzuna doan ura eta zuntz optikoa. "Badago hutsik dagoen hodi bat ere. Erabili ezazue hori. Ez gaude gasbide proiektuaren kontra, trazatuaren kontra baizik".

Parlamentariei azaldu zien bi alkateek behar izan dituzten ate

guztiak jo eta gasbidearekin zirikusia duten hainbat ardura-dunekin bilerak egin dituztela. "Inork ez gaitu entzun. Haietako batzuek proiektua ezagutzen ez dutela esatera ere ausartu dira. Proiektu hau aurrera aterako denean, beraien sinadura due-lako". Horrek guztiak bi alkateei "frustrazioa, ezintasuna, haserre, tristura... ez ezik, lotsa ere sentitzen dut. Izugarriko errespetu falta iruditzen zait".

Bi alkateen izenean Olaberriak adierazi zuenez, "bi udalendako Aralar zentrala da. Aralar gure kulturaren eta nortasunaren parte da. Uste dugu, gure kezka eta proposamenak entzun eta kontuan hartzea merezi dugula". Horregatik, alternatibak berri-kusteko eskatu zuten Parlamen-tuan.

Alderaketa

Alkateek zehaztu zuten, trazadurako ingurumen inpaktu txostena "erabat minimizatua" dago, "ez da egia esaten. Ingurumen Departamentuan bertan egindako txosten bat badago, Aralar ez den beste edozein trazatutik egitea erregutzen duena". Alternatiba eta egitasmoaren arteko aldeak agerian uzteaz arduratu zen Martinez de Zuazo, udalendako alternatiba egin duen ingeniaria. Iribas eta Irurtzun arteko ur ekarriaren zati baten konponketaren arduradun izan zen 2017an.

Jakinarazi zuenez, Nedgiak Plazaolako alternatiba "gaizki" aztertu zuela gaineratu zuen. "Bide berdea Larraun ibaiaren ezkerreko ertzetik doa zatirik handiaren. Enpresak eskuin aldean trazatu bat egin zuen, eta atzera bota zuen".

Enpresaren proiektuak ez du ez topografia ezta geologia iker-

ketarik. Eta hainbat akats eta gabezia dituela nabarmendu zuen ingeniariak. "Lanen marrazki bat bera ere ez dago. Gasbidea sartzeko 8 metroko zabalera behar dituztela dio enpresak, baina kontuan izanik trazatuaren zati handi batean %40 inguruko aldapa dagoela, malda zelaitu egin behar da eta horrek 16 metroko zabalerari eraginen dio". Jakinarazi zuenez, Lekunberrin, 1,2 km-tan, gasbidea 3 metro zabal dituen dermioko bide batetik joanen litzateke. "Hori posible bada, zergatik ez da posible bide berdean?" Lanek sortutako errosioaz ez da ezer jaso txostenean, ezta hondakinen kudeaketaren inguruan ere.

Proiektuan jaso denez, zuhaitzez estalitako 12.000 m²-ri eraginen lioke Aralarren barnako gasbideak. "Motz gelditzen da, benetan 66.000 baitira, hau da, 6.000 bat zuhaitz moztuko litzateke. Gainera, ez du zehazten zenbat zuhaitz moztuko dituzten. Legeak basoberritzea exijitzen du eta halakorik ere ez da inondik agertzen proiektuan". Akuferoak daude Aralar azpian eta ingeniariaren iritziz, enpresaren trazatu proiektuan "erdia kanpoan utzi dute eta inpaktua gutxitu dute. 5.800 metrori beharrea 12.000 eragiten die".

Jakinarazi zuenez, 2,7 milioiko inbertsioa beharrea 7,5 milioi euroko aurrekontua duen lana da gasbidea Aralartik eramatea. "Plazaolakoak merkeagoa eta ingurumen eragin txikiagoa du".

GASBIDEKO LANAK GELDIRIK DAUDE EPAILE BATEN AGINDUZ; BAINA AURKI HAS DAITEZKE

XX. menderako bidaia

Arbizuko udaletxeko bilkura gela txiki gelditu zen larunbatean. Nafarroako Ondare Immaterialaren Artxiboaren parte izateko zortzi elkarrizketa grabatu zituen Labrit Ondarea enpresak udazkenean eta haien laginak aurkeztu zituen. XX. mendeko Arbizuko gizarte tradizionalaren memoria eta testigantzak jaso zituzten eta haiek arreta handiz entzun zituzten.



UTZITAKOA

kaxeta
LIBURUEN DENDA

KATE MORTON
DE VUELTA A CASA

Udaberrirako presta zaitetz!

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

xapatero
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz

Ikaskideak basora eraman dituzte han praktikak egiteko

Sakana Lanbide Heziketa institutuko Eskalada eta Mendi Ertaineko ikasleek hala egin dituzte praktikak

SAKANA

Proiektuetan Oinarriritutako Ikaskuntza metodologia erabiliz kirol ikasketak egiten ari dira Sakana Lanbide Heziketa institutuan. Erdi mailako zikloak dira mendi ertaineko gida izatekoa eta eskaladako. Bateko eta beste ikasleek ikasketak prozesuan zehar klub bat eratu eta mendigoizaletasuna sustatzeko plan bat egin behar dute. Elkarrekin eratu eta plana gauzatu bitartean ikasleek hainbat gauza ikasten dute.

Planean, esaterako, bost mendi irteera aurreikusita daude. Haietako bi erreala dira eta ikastetxean ikaskideak diren gazteekin egiten dituzte praktikak. Hala, ostiralean, Altsasuko Dantzaleku eta San Pedro aldean ibili ziren bederatzik ikasleak, irakasleak eta 30 bat ikaskide. Ikasleek hamar bat kilometroko ibilbidea osatuz uzten eta ibilbidean zehar mendiarekin zaletzeko hainbat jarduera prestatu zituzten, esate baterako: tirolina, bibaka nola egin, mendira joateko motxila bat nola prestatu, orientazio proba bat, zuhaitzak eta haien hostoak nola bereizten jakin... Bi orduz ibili ziren gora eta behera.

Institutuko mendi ertaineko gida eta eskaladako ikasleek antolatu duten bigarren irteera Aralar mendira da. Han, besteak beste, mendian orientatzeko dauden moduen berri emanen diete ikaskideei. Kirol ikasketak egiten ari diren ikasleak arduratu dira baimenak eskatzeaz, jarduerak antolatzeaz, mendira joateko autobusa kontratatzeaz eta beste. Ikasketen bidez lan arloko egoera erreala simulatzen dituzte eta haiei erantzuna emateko gaitasunak garatzen dituzte. Zorionez, orain arte ez dute ikasitako lehen sorospenak praktikan jarri behar izan.

Sarbidea

Lanbide Heziketako araubide bereziko kirol ikasketak dira mendi ertaineko gida eta eskaladako. Ez da nahikoa izen ematea, aurretik sarbide probak egin behar dira eta horiek egin ahal izateko izen ematea apirilaren 17tik 23ra da. Sarbide probak maiatzak 29tik garagarriaren 1era izanen dira eta haiek pasatzen dituztenak zikloetako 1. eta 2. mailan izena emateko aukera izanen dute garagarriaren 5etik 7ra.

DUELA 25 URTE...



Xota txapeldun

Areto futboleko zilarrezko mailako kopa txapelketa Bartzelonan jokatu zuten lau taldek. Final erdian MRA Carsal Xotak faborito zen Cartagenako Minguez Sanz taldea 13-4 hartu zuen mendean. Hurrengo eguneko finalean Mostoles taldearen kontra neurtu ziren irurtzundarrak eta berdeek 5-4 irabaztea lortu zuten. Irurtzungo taldeak bere historiako aurreneko titulua eskuratu zuen. Gainera, Bizente Albizu irurtzundarrak jokalarionenaren saria eskuratu zuen.

Aosta Ibarreko eskolen baliabideekin harrituta

Lakuntzako eta Arbizuko eskoletako hiru irakasleek astea eman dute Italian. "Argi daukate Hezkuntzako premiak asetzeko baliabideak ezinbestekoak direla. Deigarria egin zaigu bertan dituzten baliabide pila Hezkuntzako Behar Bereziak tratatzeko"

LAKUNTZA / ARBIZU

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroak inklusioa helburu duen Hezigarri programa zuzentzen du. Haren barruan, besteak beste, Sakanako eskolak daude. Italiako Aosta Ibarreko Gobernuak Hezkuntzan Behar Berezien tratamenduan eta inklusioaren alde indar handia egin du. Lakuntzako eta Arbizuko herri eskoletan horren berri bazuten eta gertutik ezagutu nahi zuten. Zentroa sakandarren interesaz jakitun, Erasmus + ekimenaren finantzaketa lortu zuten hiru irakasle sakandar hara joan ahal izateko: Ane Miren Iruretagoiena Aldazabal (Lakuntza) eta Saioa Alegria Lahidalga eta Aizea Beraza Bengoetxea (Arbizu). Hirukotea hilaren 13tik 17ra Aostan izan zen.

Aosta Ibarra Italia iparraldean dago eta Frantziarekin eta Suitzarekin mugan. Han italiara eta frantsesa hitz egiten dira. Historikoki Italia Hegoaldeko familien migrazio hartu ditu. Gaur egun Europatik kanpokoak ere, Magreb eta Bangladeshtik etorritakoak, esate baterako. Herri handietan ikasle migratu gehiago daude (%30), gutxiago herri txikietan. Azaldu dutenez, "irakasle bakoitzak bere gaia ematen du eta, horretaz aparte, ordu batzuk ditu migratuta ikasleei banakako italiara errefortzu eskolak emateko".

Baliabideak

Aosta Ibarren helburua da herri bakoitzak bere eskola mantentzea, nahiz eta ikasle kopuruak txikiak izan. Ibarrek bere autonomia baliatu du hezkuntzara baliabideak bideratzeko. Hala, sakandarrek gela askotan ikasleekin hiru pertsona ikusi dituzte: irakaslea, irakaskuntza laguntzailea (behar bereziak dituzten ikasleak laguntzen ditu) eta laguntzailea (esaterako mugikortasun arazoak dituen la-



Sakandarrak Aostako ikasle eta irakasleekin. UTZITAKOIA

SAKANDARREK BEHAR BEREZIAK AOSTAN NOLA LANTZEN DITUZTEN JAKIN NAHI ZUTEN

guntzeko). Bestela, gela askotan irakaslea eta irakaskuntza laguntzailea zeuden. Baliabide ugartasun horrekin harrituta gelditu ziren.

Sakanakoen antzeko tamaina zuten eskolak bisitatu zituzten, eskola txikiak. Geletan egon ziren eta, ondoren, irakasleekin hizketatzeko aukera izan zuten. Behar bereziak (autismoa, down, itsuak, gorrak, mugikortasun arazoak...) nola lantzen dituzten jakin nahi zuten. Ikusi zuten banaka hartzen zituztela ikasleak, ez taldean. Jabetu ziren klaseak bideratuta zeudela, espontaneotasunari toki gutxi ematen ziotela. "Guk ezagutu genuen hezkuntzaren antzekoa zen, tradizionalagoa; hemen orain talde lana eta beste metodologiak erabiltzen ditugu".

Ikasleak 08:30etik 12:30era eta 14:00etatik 16:30era egoten dira

eskolan, eta han bazkaltzen dute. "Irakasleek ez dituzte ikasleek beste ordu sartzen baina hemen baino gehiago, bai; 36. Batzuk goizean goiz sartu eta eguerdian ateratzen dira eta beste batzuk goiz erdian sartu eta arratsaldean ateratzen dira. Oso kezkatuta daude gurasoei ordutegi zabala eskaintzez. Sekulako antolakuntza dute hori dena bateratzeko, kudeaketa konplexua da".

Aostan irakaskuntza eleanitza da, italiara eta frantsesera ikasten dituzte. "Adineko jendeak erraztasunez hitz egiten du frantsesa, baina indar gutxiago du frantsesak beraien artean. Ibarrari nortasuna ematen dion gai bat denez, edozein langile publiko bi hizkuntzak menperatu behar ditu eta soldatan ere bi hizkuntza jakiteagatik osagarria ordaintzen diete. Horretaz aparte, ingelesa goiz ikasten hasten dira umeak, baina beste bi hizkuntzek baino ordutegi murritzagoa du. Frankoproventzera izeneko hizkuntza (patois gisa ezaguna) ere badago ibarrean, baina ez da ofiziala. Herri txikietan oraindik entzun daiteke, baita Frantzia eta Suitzan ere. Eskolan toki txikia du.

MASKULINITATEEI BURUZKO TAILERRAK

LAKUNTZA | MANKen | 11:00 - 13:00

Apirilak 22 • Maiatzak 6 •
Ekainak 10 eta 24 • Irailak 9 eta 23
• Urriak 7 eta 21 • Azaroak 4

Izena emateko:

berdintasuna@sakana-mank.eus

948 46 48 67

ALTSASU | Gure Etxean | 11:00 - 13:00

Apirilak 1 eta 15 • Maiatzak 13 eta 20
• Ekainak 3 eta 17 • Irailak 16 •
Urriak 14 • Azaroak 11

Izena emateko:

berdintasuna@altsasu.net

948 56 48 23



Mank
s a k a n a



"Migrazioari dagokion guztia delituarekin lotu nahi dute"

INES HUARTE GONZALEZ BOLUNTARIOA

Europako bidean Balkanetako bidea hartu duten pertsonak laguntzen aritu zen iraila bukaeratik abendura arte

Alfredo Alvaro Igoa HIRIBERRI ARAKIL Arakilgo Udalak estreinakoz joan den urtean kooperazio beka deialdia egin zuen. Bi helburu zituen, batetik, arakildar gazteen artean garapen bidean dauden herrialdeetan kooperazio jardueren inguruan sentsibilizatzea eta, bestetik, herrien eta kulturen arteko elkartasun kultura gazteen artean sustatzea. Horretarako, gazteek gobernuz kanpoko erakunderen batekin aritu behar zuten.

Balkanetako egonaldia despedituta, "ikusezin bihurtutako errealitate" horren berri Hiriberri Arakilen jasotzeko aukera izanen da gaur, 19:00etan, Txitera elkartean. Balkanetako bideari buruzko dokumentala emanen dute eta ondoren, Huartek lan egin zuen erakundearen eta bere esperientziaren berri emanen du. Aukera baliatuko dute elkartasun pintxopotea eta diru bilketa egiteko.

Zergatik eman zenuen bekarako izena?

Momentu hartan lana uzteko tan nenbilen. Dagoeneko ibilia nintzen beste gobernuz kanpoko erakunde batean lanean, Donostian. Kanpora irteteko gogoan nuen, baina momentu hartan, egia esan, ez nuen buruan momentu hartan egitea. Baina beti izan nuen ideia hori hor. Lehenago ere, 2016an, Greziako errefuxiatu eremu batean boluntario aritu nintzen lanean. Arakilgo

Udalaren deialdia garagarrilean atera zen, nire egoera pertsonalarekin, primeran etorri zitzaidan. Egun batetik bestera erabaki nuen nire burua beka horretara aurkeztea. Eta, hara non, Arakilgo Udalaren beka jaso nuen. **Aurretik esperientzia bai, baina bekarik gabe egiteko asmoa izanen zenuke?**

Bekak horretara jarri ninduen: pentsatzea nora joatea gustatuko litzaidakeen, zer erakunderekin, erakunde horrekin harremanetan jartzea. Beka jaso ahal izateko plangintza aurkeztu nuenean pentsatu nuen bai edo bai joango nintzela, beka jaso edo ez. Baina beka aitzakia izan zen proiektu hori prestatzeko.

Beka deialdia egin zenerako erakunderen bat begiz jota zenuen?

Batzuk nituen buruan. Bekaren estreinako aldia zenez, denbora gutxi izan genuen aurkezteko. Berehala jarri izan behar izan nuen hainbat erakunderekin. Erantzunak jaso ahala bati edo besteari eman nion lehentasuna. Gehien bat bi aukera nituen: No Name Kitchen, azkenean, haiekin egon nintzen eta Hego Amerikako erakunde bat. Baina migrazioarekin lotuta baino, komunitate kulturarekin harremana zuten proiektua zen.

Zergatik aukeratu zenuen bat eta baztertu bestea?

Biak oso desberdinak ziren. Gehien bat erantzunaren azkar-tasunagatik izan zen.

Ordura arte migratzaileekin lan egin zenuen, ezta?

Bai. Hala suertatu zitzaidalako. Psikologia ikasi nuen Donostian. Beti gustatu izan zait psikologia sozialaren alderdi hori. Praktikak psikologia sozialari lotutako erakunde batean egin nituen, justu, migrazioa bideratuta zegoena, hemen gehiago kultur aniztasunari lotutako erakundea zen. Han bukatu nuen lanean eta, horregatik hain zuzen, mundu horri lotutako beste erakunde batzuk ezagutu ditut.

Azaletik bada ere, zer da psikologia soziala?

Psikologiak hainbat alderdi ditu. Psikologia sozialak aztertzen ditu taldeen arteko harremanak eta eraginak nolakoak diren.

No Name Kitchen, izenik gabeko sukaldea euskaraz. Zer erakunde mota da?

Governuz kanpoko erakunde edo proiektu edo mugimendu bat da, horrela izendatzen dute beren burua. Oker ez banago 2017an sortu zen eta hainbat naziotako boluntarioek osatzen dute. Erakunde txikia da. Oraingoaz liberatu gutxi ditu, parte hartzen duten pertsonak, gehienbat, boluntarioak dira. Handitzen ari da. Hainbat kokaleku ditu, baina batez ere Balkanetan lan egiten du. Mugimenduan dauden pertsonen elkartasuna adierazten lan egiten du, bai aterpe, bai babes bila doazenekin, baita bertakoekin ere.



Ines Huarte Gonzalez atsedean une batean. UTZITAKOIA

Pertsona horiek Balkanetara iritsi badira sorterrria utzita, Turkiatik edo Mediterraneo gurutzatuz egingen zuten. Balkanetara motxila handi batekin iritsiko dira, ezta?

Hori da. Beraien herrialdeetatik ihesi edo alde egiten duten pertsonak Europara bidean, edo, batez ere, toki seguru baten bila joaten direnean hainbat ibilbideren artean aukeratzen dute eta haietako bat Balkanetakoa da, migrazio ibilbide nagusietako bat da. Balkanetatik pasatzen den jendea, normalean Greziako

"SIRIAKO GERRAREN ONDOREN GKE ASKO GREZIARA JOAN ZIREN. BALKANETAN EZ DAGO LAGUNTZA SARERIK"

"KROAZIAKO POLIZIAK, ASKOTAN LEGEZ KANPO, BOSNIARA ITZULARAZTEN ZITUEN, ASKOTAN BORTIZKI"

kostaldera iritsi da, edo Turkia-ra. Handik Europa iparraldera abiatzean, Balkanetatik pasatzen dira. No Name Kitchen bezalako erakundeak bertan kokatzen dira han ez dagoelako laguntza sare handirik. Siriako gerra ondoren elkartasun olatu handia ikusi genuen, erakunde asko Greziara joan ziren jendea hainbat modutan laguntzera. Baina Balkanetan, esaterako, ez dago laguntza sare hori eta horrelako erakundeak han kokatzen dira. Hango herrialdeek ere ez dituztelako azpiegitura eta gaitasun ekonomiko handiak artatzeko. Beraz, han dagoen jendea ez da han gelditu nahi duelako; han daude mugimenduan, pasan daude.

Erakundeak hainbat kokaleku ditu. Zuk haietakoren batean lan egin zenuen?

Bai. Bost kokaleku ditu: bina Serbian eta Bosnian eta beste bat Grezian. Ni Bosniara joan nintzen, Velika Kladusa hirira; Bosnia eta Kroaziaren arteko mugaren ertzean dago.

Mugak txarrantzak eta hesiz bete-ta, polizia kontrol handiak. Europa amestura sartzeko trabak besterik



ez dituzte opatzen. Zuek han egoitza bat eta jendearekin topo egin zenuten. Zer gertatzen da topaketa horietan?

Jendea, normalean muga horiek gurutzatzen saiatzen da. Europako herriek jarri dituzten muga horiek gurutzatu nahian, normalean, haien giza eskubideak zalantzan jartzen ari dira. Eta askotan beraien bizitzak ere arriskuan jartzen dituzte muga horiek gurutzatzeko. Batzuetan mugak ez dute zertan fisikoak izan behar: txarrantxa edo hesia. Batzuetan muga naturalak izan daitezke: mendiak, basoak edo ibaiak.

Guk pertsona bat opatuz gero, bere ibilbide horretan harrera eta laguntza duina ematen genion, hurbiltasuna, zerbitzuak eskainiz. Gure lana, zehazki, arropa banatzea zen. Jendeak eskatzen zuen. Gure donazioen artean pertsona bakoitzari egokituko zitzaion arropa sorta lortzen saiatzen ginen, gero haiei eramateko. Dutxa beroak ere bai. Halakoak toki batetik bestera eramateko sistema bat daukagu. Gelditzen ziren pertsonekin ha-

rremanetan jartzen ginen haiek zeuden tokira joan eta dutxa beroa har zezaten. Izan zitekeen basoa, utzitako lantegi bat, hustutako etxea... Haietara arropa, dutxa beroak eta lapikoak eramaten genituen.

Han, muga, legez kanpoko deportazio asko izaten ziren. Jendeak Kroaziara sartzea lortzen zuen, askotan poliziaekin topo egiten zuen eta, legez kanpo, Bosniara itzularazten zituzten. Askotan modu bortitzean. Guk pertsona horiek artatzen genituen. Giza eskubideen urraketen testigantzak jasotzen genituen, ondoren datu base batean erregistratzeko. Beste eginkizun garrantzitsua zen hori.

Migratzaileek nola zuten No Name Kitchenen berri?

Normalean, gure berri zuten gu hurbiltzen ginelako edo, agian, batak besteari informazioa pasatzen ziolako. Azkenean, bidean doazen pertsonen artean sareak sortzen dira eta eta batak besteari informazioa pasatzen dio. Horregatik, normalean, kokalekuak toki finkoak ziren, baina bertan zegoen jendea aldatzen

zihuan, gehienak saiatzen zirelako beti muga gurutzatzen. Epe motzerako zeuden, muga zeharkatzea lortzen zuten arte. Edo beste toki batera joaten ziren, han ez zutelako. Gu, normalean, kokaleku horietara hurbiltzen ginen eta geure burua aurkezten genuen. Haiek ere ezagutzen genituen edo ikusten genuen guk gure esku zer genuen eta zer egin genezakeen egoera hura nolabait arintzeko, edo beharrak asetzeko.

"KOKALEKUAK TOKI FINKOAK ZIREN, BAINA BERTAN ZEGOEN JENDEA ALDATZEN ZIHOAN"

"MIGRATUEKIKO ERANTZUNA HIRIAREN ARABERA DESBERDINA DA. DENETARIK DAGO"

Zuen lan esparrua ere oso mugatua egonen da, zuen laguntza tokiko legeen arabera delitua izan daitekeelako.

Bai. Balkanetan eta Grezian ere ikusten ari gara migrazioa kriminalizatzen dela, baita migratzaileekiko elkartasuna ere delituztat hartzen da eta kriminalizatzen da ere. Azkenean, lortu nahi dute migrazioari lotutako guztia delituarekin lotzea. Beraz, guk ere kontuz ibili behar genuen. Eta beti egiten genuena edo neurtu edo nolabait mozorrotu edo ezkutatu lege itxura izan eta kriminalizazio hori ekiditeko.

Zein da bidean dauden pertsonen profila?

Urteekin aldatzen joan da. Nik ezagutu nuen jendea, gehienbat, gizonezko gazteak ziren. Gehienbat Afganistan eta Pakistanoak, edo Ekialde hurbileko herrialdeetatik etortzen zirenak: Iran, Irak, Kurdistango gazteak. 16 eta 25-30 urte arteko gazteak ziren. Gehienbat bakarrik bidaiatzen zuten. Bidean ezagututako jendearekin, edo lehengusu batekin edo anaia batekin taldeak osatzen zituzten. Askok, dagoeneko, Europan senideren bat zuten; nahiz eta urruneko familia izan. Baina berarekin elkartzeko asmoa zuten askok. Beste batzuk ez, bakarrik joaten ziren. Nahiz eta sorterriko herrialdeetan deklaraturako gerrarik ez egon, soziopolitikoki herrialde oso ezegonkorrak dira, gatazka handiak dituztenak. Askok talibanengandik egiten zuten ihes, edo pobreziatik, edo bizitza hobe baten bila.

Familiak ere opatzen genituen, gehien bat Siriatik etortzen ziren, edo Kurdistanetik. Batzuetan Afrika hegoaldeko herrialde batzuetako jendea ere ikusten genuen batzuetan, esaterako, Burundiko jende asko, Kongokoa edo Kamerungoa.

Muga horiek zeharkatu ahal izateko denbora behar izaten da. Balkanetako gizarteak zer nolako harrera egiten die bidean diren pertsona horiei?

Toki guztietan bezala denetarik dago. Ezberdinduko nuke gizarteak egiten dien harrera eta instituzioek egiten dietena. Gizartean denetarik dago. Europako iparraldearekin konparatuta, beti herrialde pobretuak izan dira. Bestetik, esaterako, Bosniak eta Serbiak historia hurbil oso bortitz eta latza izan dituzte, oraindik ere, nolabait, berres-

kuratzen ari dira. Beraz, migratuekiko erantzuna hiriaren arabera desberdina da. Denetarik dago, elkartasun handia erakusten tokiak daude, arazoa ekiditen dutenak, edo arazoaren aurrean begiak ixten dituztenak ere badaude.

Han psikologia soziala praktikatzeo aukera izan zenuen?

Psikologia soziala oso zabala da. Han taldekide bakoitzak egiteko bat zeukan. Nirea, besteak beste, indarkeria politiko hori jasan zuten pertsonen testigantzak jasotzea zen. Nahi zuenari elkarrrizketa egiten nion eta, ondoren, elkarrrizketan oinarrituta txosten bat idazten nuen. Hura nolabait agerian, dokumentatuta, gelditu zedin, ondoren salaketa soziala eta politikoa egiteko. Salaketa Parlamentura eramanez, hilabetero txostenak eginez eta bestela egiten da.

Harremana sortzen da halakoetan. Buelatu ondoren, migratzen ari den pertsonaren batekin erlazioa mantentzen duzu?

Batzuekin bai. Kontatzen digute non dauden, nola iritsi diren, zertan ari diren orain. Batzuek bidean zeudela zuten itzaropena zen amestutako herrialde horretara edo Europa horretara iritea. Zoritxarrez, iritsi direnean ez dute topatu espero zutena, zailtasun asko bizitzen ari dira. Baina, gutxienez, babesean daude gehienak.

Dagoeneko etxean bueltan. Aldian-aldian buruak handik buelta egiten du?

Bai, batez ere hasieran. Kosta egiten da batzuetan hain errealitate hurbil eta urruna aldi berean uztea. Harremanetan jarraitzen dut oraindik bertan ezagututako jendearekin, erakundearekin ere. Horrek ere laguntzen du trantsizio horretan.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 24

ALTSASU Kontzertua.

Nafarroako Orkestra
Sinfonikoaren *Sinfonika Nafarroan* kontzertua.
17:30ean, *lortia kultur gunean*.

ALTSASU Gazte agenda.

Traitors jolasa.
18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean*.HIRIBERRI ARAKIL Proiektzioa
eta solasaldia.Arakilgo 2022ko kooperazio bekaren aurkezpena Ines Huarteren eskutik. Balkanetan mugimenduan dabilten pertsonekin lan egin ostean, Bosnian izandako bizipenak kontatuko ditu *Shadow Game. Un viaje por el lado oscuro de Europa* dokumentalaren proiektioarekin batera. Ondoren, pintxo pote solidaria.
19:00etan, *Txiteran*.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Altsasun pediatrik orain! Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak eta guraso talde batek deitutako elkarretaratzea.
19:00etan, *udaletxearen aurrean*.

ZIORDIA Clown ikuskizuna.

Lorena Arangoaren *Terapia* ikuskizuna. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.
19:00etan, *gaztetxokoan*.IRURTZUN Mendi jarduerak:
Proiektzioa eta solasaldia.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN*El hijo gaurkotasunezko filmaren emanaldia euskaraz*
Igandea 26 19:30IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN*Saint Omer zineforum filmaren emanaldia*
Igandea 26 19:30Alex Txikonon *Manaslu. Arimaren mendia* proiektzioa eta solasaldia, euskaraz eta gaztelaniaz.
19:30ean, *kultur etxean*.

ALTSASU Kontzertua.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren *Sinfonika Nafarroan* zikloaren kontzertua.
19:30ean, *lortia kultur gunean*.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Mexikarrak Pantxo Valbuenarekin.
23:00etan, *Leku Ona tabernan*.

OLAZTI Magia ikuskizuna.

Txan Magoaren helduendako magia ikuskizuna.
23:00etan, *Barandi tabernan*.

LARUNBATA 25

ARBIZU Lasterketa.

XXV. Arbizuko Duatloia.
11:00 Haurren herri duatloia ez lehiakorra.
15:00 Arbizuko Duatloia-aren sortzaileei omenaldia.
15:30 Duatloia: 8-32-4 km. Herri ibilbidea: 4-16-2 km.

IRURTZUN Solasaldia.

Emakume taldearen 30. urteurren kafe solasaldia.
16:30ean, *kultur etxean*.

ALTSASU Topaketa.

Sakanatik ari gara Emaireren hamargarren urteurren ospakizuna.
11:00 Borroka tailerra.
14:30 Bazkaria. Elorrioko Gazte Topagunearen aurkezpena.
17:30 Mural margoketa.IRURTZUN Irurtzongo pintura tailerreko *Emakumea 8 eratan* erakusketa. Irurtzongo Emakume taldearen Emakumeari buruzko 30. jardunaldien barruan.Martxoaren 31era arte. *La Tahona eta La Moncloa* tabernetan.ALTSASU Uhartte Arte Garaikideko Zentroko *Uholdeak* programaren *Materialak amatu* erakusketa.Apirilaren 16ra arte. *lortia kultur guneko erakusketa aretoan*.SAKANA *Emakumeen arteko sareak ehuntzen* ekimeneko *Patchwork lanaren* erakusketa.Martxoak 26, *Altsasu (Lilasterketa)*, eta martxoak 31, *Ziordia*.IRURTZUN *Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindari 2011-2020* esku hartze arkeologikoen inguruko erakusketa.Apirilaren 23ra arte. *Pikuxar tabernan*.

Bazkide Zozketa

1. SARIA
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

2. eta 3. SARIAK
LACTURALE: Esneki lotea
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Ez bota etxea leihotik!

Erakusketa Irurtzunen



IGANDEA 26

Sakana Oinezko eta bizikleta martxa

X. Lilasterketa. Sakanako emakumeak martxan! Martxa. Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Berdintasun zerbitzuek antolatuta. Irurtzundik eta Ziorditik Altsasura.

- 09:30** Irurtzundiko plazatik Etxeberriko silora, oinez.
- 09:45** Etxeberriko silotik Etxarrengo bus geltokira, bizikletaz.
- 09:50** Etxarrengo bus geltokitik Ekaiko bus geltokira, bizikletaz.
- 10:00** Ekaiko bus geltokitik Zuhatzuko bus geltokira, bizikletaz.
- 10:07** Zuhatzuko bus geltokitik Satrustegiko bus geltokira, bizikletaz.
- 10:12** Satrustegiko bus geltokitik Hiriberriko bus geltokira, bizikletaz.
- 10:15** Hiriberriko bus geltokitik Ihabarko plazara, bizikletaz.
- 10:20** Ihabarko plazatik Irañetako bidegurutzera, bizikletaz.
- 10:25** Irañetako bidegurutzetik Uharte Arakilgo plazara, oinez.
- 10:55** Uharte Arakilgo plazatik Arruazuko plazara, oinez.
- 11:25** Arruazuko plazatik Lakuntzako plazara, oinez.
- 11:55** Lakuntzako plazatik Arbizuko kiroldegira, oinez.
- 12:15** Arbizuko kiroldegitik Etxarri Aranazko bus geltokira, oinez.
- 12:45** Etxarri Aranazko bus geltokitik Bakaikuko iturrira, oinez.
- 13:20** Bakaikuko iturritik Iturmendiko sarrerara, oinez.
- 15:45** Iturmendiko sarreratik Urdiango bentara, oinez.
- 16:00** Urdiango bentatik Altsasuko bentara, oinez.
- 15:25** Ziordiko plazatik Olaztiko bus geltokira, oinez.
- 15:55** Olaztiko bus geltokitik Altsasuko bentara, oinez.
- 17:00** Altsasuko Foru plaza. Amaiera festa: Ekitaldia, merienda eta batukada feministak.
- 18:00** Pantxika Lamur.

*Aurretik izena eman behar da Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuan. 948 464 867 / 660 38 43 28 edo berdintasuna@sakana-mank.eus.

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

Josu Zabala Salegi *Basajaunen* eraiketaren 26. urteurrenaren Jardun Koordinadoraren omenaldia. **13:00etan, plazan.**

ETXARRI ARANATZ Film dokumentala.

Karpeta Urdinak torturari buruzko dokumentalaren emanaldia eta Ander Iriarte zuzendariarekin solasaldia. **18:00etan, kultur etxean.**

ASTELEHENA 27

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde. **12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

ASTEARTEA 28

ARBIZU Solasaldia.

Hazieraren bidelaguntza solasaldia. **17:00etatik 19:00etara, Kattuka haur eskolan.**

ALTSASU Tailerra.

Uholdeak: Materialak amatu programaren barruan Nerea Baldaren zaintzaren eta amatasunaren inguruko Ama-irakurketa eta idazketa saioa. **17:30ean, lortia kultur gunean.**

OSTIRALA 31

IZURDIAGA Erakustaldia.

Artisautzaren Europako Egunak programaren barruan Forjas Brun tailerra irekita egonen da eta forja

erakustaldiak eta haurrentako tailerrak eginen dituzte, doan. Irulegiko Eskuak forjatuko dituzte ere. **10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara, Forjas Brun tailerrean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexologia aholkularitza Itxaso Torregrosa sexologoarekin. **17:30-19:30 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. 19:30-20:30 17 eta 30 urte bitarteko gazteendako.**

ALTSASU Hitzaldia.

Erdiz Bizirik elkartearen aurkezpena. **18:30ean, lortia kultur gunean.**

ETXARRI ARANATZ Ikuskizuna.

Amarau, irauenez irau bertso eta dantza ikuskizuna. **19:00etan, kultur etxean.**

ALTSASU Kontzentrazioa.

Altsasun pediatrik orain! Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko plataformak eta guraso talde batek deitutako elkarretaratzea. **19:00etan, udaletxearen aurrean.**

IRURTZUN Antzerkia.


Irurtzundiko antzerki tailerraren *La dama vuelve* antzeztanaren emanaldia. **19:00etan eta 21:00etan, kultur etxean.**

LAKUNTZA Kontzertua.


Penadas por la ley 30. urteurren biraren, Zero eta Ultimatum taldeen kontzertua. **21:00etan, kultur etxean.**

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 24




Larunbata, 25



Igandea, 26



Astelehena, 27



ALTSASU M8. Gazte agenda.

Musas y Fusas taldearen *Más iguales, más libres* kontzertua. Altsasuko Udaleko Gazteria eta Berdintasun zerbitzuek Martxoaren 8aren harira antolatutako programaren barruan. **19:00etan, lortia kultur gunean.**

ALTSASU Antzerkia.

Tarima Beltza antzerki taldearen *Sin salida* antzeztanaren mustutze emanaldia. **19:30ean, lortia kultur gunean.**

ALTSASU Festa.

Remember 2000 festa. **20:00etan, Haritza tabernan.**

ETXARRI ARANATZ Festa.

Sakanako neska* gazteon *Mari Festa* gaupasa ez mistoa: Zaunka, Perlata eta DJ Pezon taldeen kontzertuak. **22:30ean, gaztetxean.**

ALTSASU Kontzertua.

Irurtzundiko SALV Rural HXC eta Iruñeko Damned Ritual taldeen kontzertua.

23:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Emanaldia.

DJ Berix disko jartzailearen saioa. **23:30ean, Xume taberna.**

IGANDEA 26

ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen ibilbidea: Ulibarri – Katusarte – Harana – Lana – Oztamendi – Iturzabal – Cristobal – Ulibarri. Ulibarrira norberaren kotxean joanen dira. **08:00etan, egoitzatik.**

ETXARRI ARANATZ

Herri kirolak.

Nafarroako Herri Kirol Jokoen laugarren jardunaldia. **10:30ean, Euskalerrari frontoian.**

ESKELA



Ana Goikoetxea Ostiza

Zurekin euskaltegian pasa ditugun momentu on guztiak gordeko ditugu gure bihotzetan.

Euskaltegiko zure gelakide eta lagunak

ESKELA



Ana Goicoechea Ostiza

Urdiaingo eskolako komunitatea osatzen dugunok ez zaitugu ahaztuko

Urdiaingo herri eskola

ESKELA

Ana Goicoechea Ostiza

Plazera izan da zurekin topatu izana



Urdiaingo Udaleko zure lankideak

ESKELA



Ane Alegre Moreno

Ferialeko bizilagunen partez maitasun handiz familia guztiarentzat.

Besarkada bero bat

Zuen bizilagunak
Altsasu

OROIGARRIA



Teodora Garabieta Galarza

(Victorino Gibraren alarguna)
I. urteurrena

100 urte gure artean bizirik gustukoa zenuen kantua oroitzu "Oi ama Euskal Herri goxoa" zurekin kantatuz betirako gure gogoa

Zure familia
Altsasun, 2023ko martxoaren 24an

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Pisu bat alokatzen da Sakanan 683 162 018.

SALGAI

Etxarri Aranatz pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edurne.

IKASTAROAK

Berto Udalekuean izen emateko epea: Martxoaren 24tik apirilaren 17ra arte. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) www.bertozale.eus web orrian, 943 694 129 zenbakira deituz (astelehenerik ostiralera, 10:30etik 13:30era) edota aisialdia@bertozale.eus helbidera idatziz.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Altsasuko Udalak Aisialdiko begiraleak eta zuzendaritza kontratazko poltsa osatuko du: Lan poltsan sartu nahi dutenek beraien eskaerak apirilaren 11tik 21era aurkeztu behar dituzte udalarekin edo Altsasuko Udalaren egoitza elektronikoa. Lan poltsaren indarraldia bi urterako izanen dela jakinarazi dute, 2023ko ekainaren 1etik 2025eko maiatzaren 31a arte.

Jaibuserako arduradunak behar dira: Interesa dutenek bi baldintza bete behar dituzte, adin nagusia izatea eta euskaraz

jakitea. Informazio gehiago Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan: Irurtzun aldekoak 605 466 805 tfnora deitu, Etxarri Aranatz aldekoak 679 534 481 tfnora eta Altsasu aldekoak 616 841 995 tfnora.

OHARRAK

Hondakin zerbitzuen ezohiko ordutegi bilketa: Gaur, martxoaren 24an, ostiralean, Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi duenez atez ateko bilketa duten Uharteko Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olaztin zerbitzuak beste ordutegi bat izango du. Egoerak sortutako eragozpenak barkatzeko eskatu dute zerbitzutik.

Bakaikun egur lotea eskatzeko epea zabalik: Bakaikuko Udalak egur lotea eskatu nahi dutenek martxoaren 31era arte epea dutela jakinarazi du. Eskerak udalarekin edo www.bakaiku.eus web orriaren bidez egin daitezke. Izen-abizenak eta telefonoa ematearekin batera, loteen eskatzailerak zehaztu behar dute egurra etxera nola eramanen dute. Bi aukera dituzten: betiko moduan etxeko baliabideak erabiliz egitea, edo udalak kontratatutako Arpana enpresaren zerbitzuak baliatzea. Azken aukera horren alde egiten duten bakaikuarrek egurra zein tokitan uztea nahi duten zehaztu beharko dute eskaera egitekoan.

BTT zeharkaldian izena emateko epea zabalik: Ekainaren 11n egingo da zeharkaldia. Apirilaren 30a baino lehen izena ematen baduzu inskripzioa merkeagoa da. Informazio gehiago eta inskripzioak <https://www.rockthesport.com> web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

Uharteko Arakilen etxerako epeak eskatzeko epea zabalik: Udalarekin izena eman behar da eta 35 euro ordaindu behar dira epe bakoitzarengatik eta egurra nork bere baliabide propioekin edo kanpoko enpresen bidez bilduko duen adierazi apirilaren 10a baino lehen guztia. Aurten zozketa publiko bidez banatuko dira epeak, ekainean. Epeak eskuratzen dutenek uztailearen 1etik azaroaren 1era arteko epea dute epeak jasotzeko.

Emakumeen bigunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udalen Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

BTT zeharkaldian izena emateko epea zabalik: Ekainaren 11n egingo da zeharkaldia. Apirilaren 30a baino lehen izena ematen baduzu inskripzioa merkeagoa da. Informazio gehiago eta inskripzioak <https://www.rockthesport.com> web orrian.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Moises Berrio Rosillo**, martxoaren 12an Altsasun
- **Oihan Aguirre Echenique**, martxoaren 6an Olaztin

HERIOTZAK

- **Mari Carmen Larraza Araña**, martxoaren 19an Arbizun
- **Asuncion Apesteguia San Roman**, martxoaren 22an Olaztin
- **Ana Isabel Goicoechea Ostiza**, martxoaren 18an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Burundak gogotsu ekin dio 47. denboraldiari

TXIRRINDULARITZA Aurten 38 txirrindulari trebatzen ari dira Burunda Txirrindularitza Taldean. Juntako kideek nabarmendu dutenez, taldeak betiko filosofiarekin jarraituko du eta garrantzitsuena txirrindulariak trebatzeko ikasketa prozesua da

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Igandean Burunda Txirrindularitza Taldeak 2023 denboraldiaren aurkezpena egin zuen Iortia Kultur Gunean. Juntako idazkari Gorka Mintegik eta bokala eta eskoletako entrenatzaile den Iker Floresek gidatu zuten ekitaldia, Oscar Guerrero presidentearen eta Juan Mari Guajardo speakerren faltan. "Aurtengoa Burundaren 46. denboraldia izango da. Juntako kideek ilusioz jarraitzen dugu lanean, gogotsu, eta aurrera segiko dugu" izan ziren Mintegiren hasierako hitzak. Iñaki Lasa presidente ordeak, Ismael Perez diruzainak, eta Pablo Urtasun, Xabier Ramirez



Burunda Txirrindularitza taldeko txirrindulariak, aurkezpen ekitaldia hasteko zain.

de Alda eta Josean Begiristain bokalek osatzen dute junta.

Familia berriei ongietorria egin ondoren, klubak aurrera egiteko ezinbestekoak diren babesleen ahalegina eskertu zuen. "Eurek ere momentu txarrak bizi izan dituzte baina ez gaituzte utzi, eta gure neska-mutikoei txirrindularitza jarrai dezaten ezinbesteko pilare dira".

Aurten lasterketa bat gehiago antolatuko du Burundak. Marsuaren 12an izan zen lehena, juniorren 37. Udaberri Saria, erorketa batengatik bertan behera geratu zena. Apirilaren 8an kadeteen 35. Burunda Saria jokatu da, eta aurten Olaztiko festetan uztailearen 29an lehenengo kadeteen proba antolatu dutenez, Olaztiko eskolen proba ekainaren 25era aurreratu dute. Urdiaingo eskolen proba uztailearen 1ean izango da, Urdiaingo kadeteen proba uztailearen 4an, Iturmendiko kadeteen lasterketa uztailearen 15ean, eta, azkenik, irailean Ziordiko eta Altsasuko eskolen probak, festetan. "Gurasoak lasterketen antolaketan izugarri inplikatzeko zere, eta eskertzekoa da. Foralek ere hala

esaten ziguten Udaberri Sarian, eta horrela gozamina da" esker-tu zuen Mintegik.

Betiko filosofia

Denboraldia ongi hasi dute kadeteek, Ekain Imazek larunbatean merituzko garaipena lortu baitzuen, Zarautarra Saria. Irabaztea polita dela azaldu zuten Mintegik eta Floresek, eta Imaz zoriondu zuten, baina irabaztea ez dela klubaren helburu nagusia nabarmendu zuten. "Gure betiko filosofiarekin jarraituko dugu, neska-mutikoei txirrindularitza ongi pasa dezatela eta txirrindularitza baliu garrantzitsuak ikas ditzatela. Giza ondasun handia dugu". Ikasketa prozesuari garrantzia eman zion Floresek. "Eskolak ikasketa prozesuaren hasiera dira. Kadete mailan institutura pasatzen dira, eta afizionatuen maila unibertsitate da. Azkenik, profesional maila lan mundua da. Txirrindularitza hasi diren neska-mutikoei jarraitzeko gogoia izatea da gure lorpen handiena". Lasterketetan ikusiko dutela elkar, eta klubak atek zabalik dituela berretsi zuten.

BURUNDA TXIRRINDULARI TALDEA

2023



Eskolak (30): Promesak (1): Adur Arbizu. **Hasiberriak (6):** Anai Mazkieran, Simone Flores, Aiur Matias, Alain Anguiano, Annette Curiel eta Ekaitz Paularena. **Kimuak (6):** Asier Galarza, Daniel Curiel, Iker Agirre, Unax Mazkieran, Javier Ramirez de Alda eta Eki Arbizu. **Haurrak (17):** Oier Olaberria, Xabier Curiel, Markel Lizarraga, Aitzol Hernaz, Ibai Galarza, Asier Flores, Unai Gomez, Eider Mazkieran, Lucia Andueza, Ekaitz Zufiaurre, Egoi Urtasun, Ezkai Lakunza, Markel Urteaga, Enara Perez, Mikel Lizarraga, Mikel Audikana eta Hodei Audikana. **Eskoletako entrenatzaileak:** Iker Flores eta Xabier Ramirez de Alda. **Eskoletako babesleak:** Quesos Albeniz, Garaje Urbasa, Katealde eta La Tasca de Don Jose. **Kadeteak (4):** Ekaitz Perez, Ekain Imaz, Hegoi Garcia eta Mikel Arrizabalaga. **Juniorrak (4):** Iker Begiristain, Iker Gomez, Iker Agudelo eta Asier Etxeberria. **Kadeteen eta juniorren entrenatzaileak:** Tomas Martinez eta Ismael Perez. **Kadeteen eta juniorren babesleak:** Quesos Albeniz.



Garaje Urbasa, S.A.



Laguntzaileak: Txartel, Piensos Unamuno, Berri Bikes, TDH Lizarraga, Borda Jatetxea, Lastadi, Talleres Gabirondo, Electricidad Ramos, Floristería Lorea, DYA, Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo eta Iturmendiko Udalak, Sakanako Mankomunitatea, Alejandro Hernandez asesoritzita, Mapfre, Markor S.L., Carpintería Larrainbide, Yeregui ileapaindegia eta Ifuel.



1995. urteko Arbizuko Duatloiko txirindularitza tartea. GUAIXE, ARTXIBOA

Konturatu gabe, 25 edizio bete ditu

DUATLOIA Sebastian Insaustiri eta Fernando Floresi bururatu zitzairen Arbizuko Duatloia antolatzea, Gipuzkoan jokatzeko probetan parte hartu eta gero. Gertuko laguntzarekin eraman zuten aurrera Nafarroako duatloi proba betetera dena

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Arbizuko Duatloian 25. edizioa jokatu da larunbatean, martxoaren 25ean. Data borobila, ospatzea merezi duena. Azken urteetan Arbizuko Udalak antolatzen du proba, baina arbizuar batzuen ideia izan zen, eta haiek eta haien gertukoek eraman zuten aurrera hasierako urteetan, hamabi edizio inguruan.

Nafarroako lehena

"Fernando Floresek eta biok Gipuzkoako zenbait duatloi probatan parte hartu genuen. Oso politak iruditu zitzaizkigun, eta Arbizun halako proba bat antolatzea bururatu zitzaigun. Nafarroan egin zen lehendabiziko duatloia izan zen gurea" gogoratu du Sebastian Insausti arbizuarra.

Garai hartan Nafarroan triatloia eta duatloia ez ziren bate-

re ezagunak. "Epaileak Euskadiko Federazioetik etorri behar izan ziren, hemen ez zegoelako ez federazioerik ezta ezer. Garai hartan Circuito Vasco de Duatlón zegoen, eta Gipuzkoan eta Bizkaian jokatzeko probek zirkuiturako puntuatzen zuten. Autonomien lege kontuarengatik gure probak ezin zuten zirkuituan puntuatu, Nafarroan jokatzeko zelako. Baina, hala ere, mundu guztiak parte hartu zuten Arbizuko Duatloian. Hasieratik arrakasta handia izan zuen. Jende asko etortzen zen" gaineratu du Insaustik.

**"JENDEA
ZIRKUITUAREKIN
MAITEMINDUTA
GERATU ZEN"
SEBAS INSAUSTI**

Ibilbidearekin maiteminduta

Arrakastaren arrazoiak ugari dira. "Batetik, garai haietan ez zeuden duatloi proba asko, eta antolatzen ziren guztiak oso parte hartzaileak ziren. Baina, batez ere, jendea Arbizuko ibilbidearekin eta zirkuituarekin maiteminduta geratu zelako. Argi eta garbi. Hori esaten ziguten" nabarmendu du. Hasierako ibilbidea egungoaren oso antzekoa zen, "ia berdina, bizikletaren zatia bereziki. Lehen oinezko ibilbideak Kale Nagusitik gora egiten zuten, kanping aldera, han buelta hartu eta herrian sartzen zen. Trantsizio gunea, bizikletak hartu eta uztekoa, plazan zegoen. Eta bizikletako tartea 32 kilometrokoa zen, orain bezalakoa: Arbizutik Lizarragako katea igo, Etxarri Aranaztik jaitsi eta Arbizura etorri. Eta ibilbide horri bi buelta. Gogorra zen, eta jen-

deari izugarri gustatu zitzaion. Lehen edizioan ehun pertsonatik gora etorri ziren, eta hurrengo edizioetan gehiago. Beti ehundik gora parte hartzaile egoten ziren Arbizun".

Orain baino errazago

Hasiera haietan Arbizuko Duatloia antolatzeko ez ziren eskatzen azken urteetan eskatzen diren baimen, paper eta bitarteko kopuru handia. "Askoz ere errazagoa zen antolaketa. Ez ziren gaur egun eskatzen diren bezainbesteko burokrasia traste egin behar. Gurutzetean ere ez zen horrenbeste jenderik behar. Anbulantzia bat beharrezkoa zen, foralei abisatzea, ibilbidea markatzea eta gurutzetean jendea egotea. Epaileak kanpotik zetozen. Herriko jendeak hasieratik lagundu zigun, kuadrillakoak, bikoteak eta familiak, kirolaren munduan ibiltzen zirenak... Hasierak nahiko errazak izan ziren". Ez zuten klub edo talderik sortu behar izan proba antolatu ahal izateko. "Orduan ez zen hori eskatzen. Lagun artean antolatzen genuen".

Auzatea, berrikuntza

Herritarrek ere ongi ikusi zuten lasterketa. "Berezia iruditu zitzairen eta lagundu zuten". Bazen elementu bat Arbizuko gainontzeko duatloi lasterketatik bereizten zuena: proba ondoren eskaintzen zuten auzatea. "Garai hartan lasterketa bukatuta kamiseta bat ematen zizuten opari, freskagarriren bat eta listo. Baina guk hasieratik auzatea antolatu genuen, Alda Bide elkartearen. Embutidos Arbizuko Patxi Goikoetxeak ematen zigun txistorra, arbizuar gaztagile batek gazta, eta gero sagardoa eta freskagarriak eskaintzen genituen, azken hauek Alda Bidek jartzen zituenak. Mundu guztia biltzen zen bukaeran elkartearen, eta jendea pozik eta gustura egoten zen auzatean. Giro oso ona sortzen zen".

Materiala

Arbizuko Duatloiko hasierako edizioetako argazkiak begiratzen

**"HASIERATIK AUZATEA
ANTOLATU GENUEN.
GIRO OSO ONA
SORTZEN ZEN"
SEBAS INSAUSTI**

hasita (Arbizuko Udalak argazki erakusketa jarri du batzargelan) urte hauetan bizikletak zenbat hobetu diren eta kirol materiala zenbat aldatu den agerikoa da. "Materialaren aldaketa handia da, baina gauza bat esango dizut, egiten ziren eta diren denborak ia berdina dira. Materialak zerikusia du, baina zenbateko aldea dago irabazleen artean orduko denborekin alderatuta: segundo batzuk? Minutu bat gehienez? Parte hartzaileendako minutu bat mundu bat da, baina ordu eta erdian horrenbeste al da?" dio Insaustik. Izan ere, hasiera haietan etortzen ziren kirolariak "oso onak" ziren. "Lehendabiziko urtean Virginia Berasategik parte hartu zuen, bere mailan munduko triatleta hoberenetakoa zenak. Berak irabazi zuen Arbizuko lehen edizioa. Jende oso ona etortzen zen. Izan ere, duatloian, orohar, maila ikaragarria zegoen. Garai haietan korrikako lasterketa batean 1.000 korrikalarien artean lehen 50 postuetan sailkatzen nintzen, nahiko aurrean, baina duatloi proba batean erditik atzera sailkatzen nintzen. Horrek erakusten du duatloian sekulako maila zegoela" oroitzen du Insaustik. Duatloirako bi kirolelan entrenatu behar da. "Hiru egunetan korrikako entrenamendua, eta bi egunetan bizikletakoa. Hori bost entrenamendu egun dira. Duatloiko maila itxurazkoa zen".

Kirol gogorra

Sebastian Insaustik hiru aldiz parte hartu zuen Arbizuko Duatloian. Fernando Flores ere ibili zen, Juan Migel Arzelusek behin osatu zuen, eta ondoren bealunaldi berriak batu ziren, Mikel Lakuntza, esaterako. Gero beste hainbat sakandar batu ziren. "Gogoan dut parte hartu nuen azken duatloian 39 urte nituela, eta entrenamendu batean Kateko buelta ordu erdian egin nuela. Gaur egun, hoberenak 25 minuturen bueltan ibiltzen dira. Hori zen nire maila. Beteranoen artean aurrean ibiltzen nintzen. Baina duatloi proba asko ez nituen egin. Duatloia utzi nuen, Arbizuko Kiroldagiko lanarekin (harreran lan egiten du) uztartzea gero eta zailagoa izateaz gain, bizikleta lapurtu zidatelako. Sekulako bizikleta erosi nuen, eta etxetik lapurtu zidaten. Aldamenak lapurra ikusi zuen.



Sebas Insausti (Irudian) eta Fernando Flores izan ziren sortzaile nagusiak



1995 urteko Arbizuko Duatloia. Duatleta trantsizio gunean, plazan. GUAIXE, ARTXIBOA

Bizikletan igo, herrian gora joan zen, auto batean bizikleta kargatu eta ospa egin zuten. Zorionez, aseguruak erantzun zuen. Baina duatloira itzuliz, kirol oso gogorra da. Maila pixka bat izateko, asko entrenatu beharra dago".

Arbizuko Duatloiko antolaketan lanetan Insaustiren eta Floresen kuadrillakoak, bikoteak

"DUATLOIA KIROL OSO GOGORRA DA. ASKO ENTRENATU BEHARRA DAGO" SEBAS INSAUSTI

eta kirolariak ibiltzen ziren. "Auzatea prestatzen bikotekidea eta gure kuadrilla guztia. Alejo Berastegi ere hasierako probetan duatleten zerrendekin eta denborarekin ibili zen bueltara, Garbiñe Petriati speaker lanetan ibili zen urte luzez, Patxi Satrustegi ere, Arzelus ere antolakuntzan zebilen... eta beste jende asko. Eta gero jende berria sartzen hasi zen, belaunaldi berriak, Mikel Lakuntza duatleta eta bere kuadrilla, esaterako".

Aldaketak

Kuadrilla hark Arbizuko Duatloia dozena bat edizio antolatutituen, baina denborarekin

Arbizuko Udalak hartu zuen ardura, lasterketa handitzen hasi zelako. Goizeko haurren proba gehitu zen, eta denborarekin geroz eta burokrazia lan gehiago eskatzen zuen guztiak. Sebasen kuadrillak auzatea antolatzen jarraitu zuen hainbat urtez, beste batzuk antolatuko zutela esan zitetenera arte. Gaur egun, Arbizuko Duatloian egiten diren lan gehienak (kruzeetan egon, antolakuntza, azpiegiturak prestatu, dortsalak banatu...) herriaren alde egiten diren udalerako auzolanak dira. "Uste dut orain ia herri erdia inplikatzeko delako antolakuntzan, baina herriarendako auzolanak dira. Beste azpiegitura bat eskatzen du, eta gauzak oso ongi lotu behar dira".

Insausti urtero ateratzen da Arbizuko Duatloia ikustera. Aurten ere hala egingo du. Behar-ko, gainera, hasierako sortzaileek omenaldia jasoko baitute eta bertan egon beharko duelako. Berriki bizikleta erorikoa izan zuen, aldaka apurtu zitzaion eta bajaran dago. Gutxika, osatzen ari da. "Bizikleta estatikoan aritu beharra dut, eta gutxika bagoaz". Kirola jarraitzen du, baina ez dago Euskal Herriko triatloian eta duatloian egunean, lehen zegoen bezala. "Estatu mailako onenak nortzuk diren badakit, telebistan eta komunikabideetan ateratzen direlako, baina hemen go onenak nortzuk diren ez nuke jakingo esaten. Sakandarrak bai, badakit orain Mikel Astiz maila oso onean dagoela, baina gutxi gehiago".

Lasterketa exigentea

Urte hauetan materiala zenbat aldatu den aipatu dugu, baina teknologiek duten papera ere bestelakoa da. Iraultza. Besteak beste, gaur egun kirolari asko egiten dituzten entrenamenduak eta markak igotzen dituzte Sare Sozialetara. "Horrek aurrera jarraitzea animatzen baditu eta segitzeko gogotsu badaude, ez dago gaizki". 25 edizio berandua, Arbizuko Duatloian aurrean egon nahi duenak gogotik sufritu beharko du. Badaudelako aldatzen ez diren gauzak.

MATERIALA ASKO ALDATU DA, BAINA ARBIZUN IRABAZTEKO SUFRITU BEHAR DA. HORI EZ DA ALDATU



Joan zen urtean jokaturako XXIV. Arbizuko Duatloian lehia bizia egon zen.

Omenaldia eta argazki erakusketa

Bihar, marsuak 25, larunbata, 15:30ean abiatuko da XXV. Arbizuko Duatloia, Nafarroako Duatloi Estandar Txapelketa izango dena. Arbizuko Udalak sakandarrek proba jarraitzeko deialdi berezia egin du, probaren 25. urteurrena behar bezala ospatzeko. Jakina denez, Arbizuko Nafarroako duatloi proba beteteranoena da. Goizean, 11:00etan, haurren duatloi herrikoa jokatu da.

Lasterketa hasi baino lehen, 15:00ak aldera, Arbizuko Duatloia sortzaileek omenaldia jasoko dute. Bestalde, Arbizuko udalak batzar gelan argazki erakusketa prestatu du, aurreko 24 edizioetan hartutako 80 irudi ingururekin. Ildo honetan, udalak GUAIXE bere argazki artxiboa utzi izana eskertu du, eta bere argazkiak utzi dituzten herritarrek ere esker ona jaso dute.

Bi distantzia

Proban 110 partaide inguru espero dira. Emakumeak 15:30ean abiatuko dira, gizonak 15:35ean, eta jubenilak, paratriatletak, erreleboetan ariko direnak eta distantzia herrikoa egingo dutenak 15:45ean. Proba egiteko bi distantzia daude: Arbizuko Duatloia, hau da, betiko ibilbidea (8 km korrika-32 km bizikletan-4 km korrika), hala hautatzen duten duatletak eta erreleboetan ariko direnak osatuko dutena; eta proba herrikoa, aurrekoaren distantzia erdikoa (4 km-16 km-2 km), hala hautatzen duten duatletak, jubenil mailakoek eta paratriatletak osatuko dutena. Guztira ehunen bat partaide daude izena emanda.

Lizarragako portua

Trantsizio gunea edo boxak Kale Nagusian egongo dira, eta irteera eta helmuga ere bertan izanen dira. Herri gunean lau kilometroko zirkuitu ederra prestatu du antolakuntzak, eta txirindularitza proba ikusgarria da, Lizarragako portua igotzen delako. Zehazki, Arbizutik abiatuta Lizarragako portua igo, Etxarri Aranaztik jaitsi eta Arbizuraino iritsi, hori da bizikleta tarteko ibilbidea, proba luzekoek bitan egin beharko dutena. Horregatik, Arbizuko Duatloia proba zorrotza da, eta haizeak jotzen badu, oso gogorra egiten da. Arbizuko beste ezaugarri bat da ezin dela raftinga egin, hau da, ezin dela aurreko bizikletari lotuta joan. Hala egiten duenak bi minutu egon beharko du geldirik, zigor eremuan.

Parte hartzaile guztiek 25. urteurrenako kamiseta berezia jasoko dute eta dortsala bueltatzerakoan txistorra jasoko dute opari. Sari ematea 18:30ean hasiko da, eta saridunek garaikurra eta herriko produktuen lotea jasoko dute. Beste behin, Arbizuko Duatloia ikusgarria izango da.

Iaz Pello Osoro (1:37:13) eta Maialen Elia (2:07:09) izan ziren txapeldunak. Mikel Astiz ihabardarra hirugarren sailkatu zen (1:41:05), eta lehen nafarra zenez, Nafarroako Distantzia Motzeko Duatloi txapelduna izan zen. Altsasuko Duatloia irabazi berri, Arbizuko du jomuga Astizek, eta nahiz eta nekatuta dagoela aitortu, dena emango du.

FUTBOL PREFERENTEA

24. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Soto Ibarbaso - Altsasu	1-1
Etxarri Aranatz - Burladés B	2-2
Valle de Egües B - Lagun Artea	5-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Amigo	53
9 Altsasu	33
16 Etxarri Aranatz	16
18 Lagun Artea	10

HURRENGO JARDUNALDIA

MARSUAK 25, LARUNBATA

16:30 Altsasu - Valle de Egües B (Dantzaleku)

MARSUAK 26, IGANDEA

16:30 Aibarés - Etxarri Aranatz (San Lorenzo)

16:30 Lagun Artea - Doneztebe (Zelai Berr)

Altsasu Valle de Egüesen kontra

Burladésen kontra puntu bat lortuta, Valle de Egüesen kontra jokoan dauden hirurak eskuratu nahi ditu Altsasuk.

Etxarrik Oibarren jokatu du

Etxarrik postu bat egin du gora sailkapenean. Igandean arerio latza du, hirugarrena den Aibarés.

Lagun Arteak Doneztebe hartuko du

Lagun Arteak sailkapenaren zuloan jarraitzen du. Etzi Doneztebe hartuko du Zelai Berrin, hobeki aritzeko itxaropenarekin.

EMAKUME PREFERENTEA

KOPAKO 1. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Oberena 0-3

SAILKAPENA

EMAKUMEEN KOPA AUTONOMIKOA.

1 Castejon	3
8 Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

MARSUAK 26, IGANDEA

18:15 Univ. de Navarra - Altsasu (Univ.)

Altsasu, Kopan

Kopa Autonomikoko lehen partida galdu ondoren, Universidad du aurkari Altsasuk.

FUTBOL ERREGIONALA

22. JARDUNALDIKO EMAITZA

San Fermin ikastola - Altsasu B 4-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	57
12 Altsasu B	19

HURRENGO JARDUNALDIA

MARSUAK 26, IGANDEA

16:00 Altsasu B - Kirol Sport (Dantzaleku)

Altsasu vs Kirol Sport, Dantzalekun

Altsasuk sailkapenean seigarren den Kirol Sporten kontra jokatu du.



Ekain Imaz, helmugan. MARTIN EARLY

TXIRRINDULARITZA Ekain Imazen garaipena Zarautarra Sarian

Ekain Imazek (Quesos Albeniz) irabazi zuen kadeteen 32. Zarautarra Saria (45,5 km), helmugara bakarrik helduta (1:05:05). Luca Martinez 6. sartu zen, Ekaitz Perez 15., Erik Laiglesia 27., Janitz Zufiaurre 70. eta Oihan Gorriti 107. Emakumeek, III. Igartza Saria izan zuten jokoan. Kadeteetan Ane Berastegi 24., Ane Beltran 31., Siets Goikoetxea 49. eta June Etxeberria 57. izan ziren.



JOSE MARI MARTINEZ

Ez da erraza izango

PILOTA Lasoren eta Imazen kontra Binakako finala nork jokatu duen igandean Bilbon erabakiko da. Elordi eta Zabaleta, edo Altuna eta Tolosa. "Inork ez du erraz irabaziko" nabarmendu du Zabaletak. Iritzi berekoa da Altuna. Presioa kudeatzea ezinbestekoa izango da, eta hori izango da partidako gakoetako bat. Hori, eta eustea, nola edo ahala.



Aimar Araña 2022ko Triku Traillean.

MENDI LASTERKETAK Triku Trailen izena emateko epea, larunbatean

Ekainaren 25ean 9:30ean jokatu da IX. Triku Traila (21 km), Nafarroako Kluben Arteko Mendi Lasterketen Txapelketa izango dena. Izena ematea larunbatean, marsuak 25, 20:00etan zabalduko da (www.trikutrail.com/izen-ematea/). Gehienez 350 korrikalari onartuko dira. Zero Zabor sortzeko erabakiari jarraiki, korrikalari bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du.

Sakandarrak Jurraramendiko Top 10ean

MENDI LASTERKETAK Proba luzean Aritz Munarriz bederatzigarren sailkatu zen eta emakumezkoetan Amaia Razkin laugarren, Olatz Azazeta bosgarren eta Marina zabala zortzigarren. 12 kilometroko proban Maria Risco bigarren izan zen eta Aimar Araña zortzigarren

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Igandean Jurraramendi Trail Mendi Lasterketa ezaguna jokatu zen, Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketako lehendabiziko proba puntuagarria.

Proba nagusia, 27 km-koa, 235 korrikalarik osatu zuten eta 16 erretiratu egin ziren. Irabazleak Xabier Zarranz (2:31:12) eta Naiara Irigoien (2:53:47) izan ziren. Proba nagusia 20 sakandarrek osatu zuten, eta horietatik lau Top 10ean sartu ziren. Gizonezkoetan, Aritz Munarriz etxarriarra bederatzigarren sailkatu zen (2:48:02). Emakumezkoetan, Amaia Razkin laugarren izan zen (3:29:00), Olatz Azazeta bos-



Maria Risco, ezkerrean. UTZITAKOIA

garren (3:30:24) eta Marina Zabala zortzigarren (3:39:40).

12 kilometroko proba Eneko Martinek irabazi zuen (59:57) eta Aimar Araña etxarriarra Top 10ean sartu zen, zortzigarren sailkatu baitzen (1:06:07). Emakumezkoetan, Nerea Haro gailendu zen (1:07:38), eta Maria Risco uharte arakildarra bigarren iritsi zen helmugara (1:18:19). Proba 179 korrikalarik osatu zuten eta bik ezin izan zuten bukatu. Guztira 7 sakandarrek parte hartu zuten.

Bukatzeke, 6 kilometroko Jurraramendi Txiki lasterketa Aratz Mendozak (32:05) eta Alaitz Erasok (32:30) irabazi zuten.

Sakandarrak

Jurraramendi Trail mendi lasterketa

27 km

• Gizonak	
1. Xabier Zarranz	2:31:12
9. Aritz Munarriz	2:48:02
28. Ander Unzurrunzaga	3:02:54
48. Igor Artieda	3:14:06
83. Alvaro Legarra	3:32:13
89. Eugeni Etxarte	3:35:03
113. Iosu Urriza	3:42:03
116. Ion Igoa	3:43:18
117. Bernar Garziandia	3:43:19
121. Gaizka Angulo	3:44:44
126. Unai Razkin	3:46:25
133. Hodei Ziganda	3:48:05
136. J. Antonio Salgado	3:49:14
139. Mikel Rekalde	3:49:38
142. Jon Navarro	3:51:43
145. Iker Cerviño	3:53:04
186. Txema Urroz	4:13:11
215. Iñaki Morillas	4:36:40
• Emakumeak	
14. Naiara Irigoien	2:53:47
79. Amaia Razkin	3:29:00
82. Olatz Azazeta	3:30:24
104. Marina Zabala	3:39:40

12 km

• Gizonak	
1. Eneko Martin	59:57
8. Aimar Araña	1:06:07
15. Joseba Galarza	1:07:56
19. Xabier Aiestaran	1:08:38
124. Ibai Martin	1:30:34
125. Ioni Araña	1:30:34

• Emakumeak

11. Nerea Haro	1:07:38
60. Maria Risco	1:18:49



Juanjo eta Juanito, gaztetxoak gidatzen.

Apirilean hasiko da Sakanako Aizkora Eskola

AIZKORA Erdoziatarrek gidatutako eskolan izena ematea apirilaren 5a baino lehen egin behar da

Aste Santu ondoren martxan hasiko da Sakanako Aizkora Eskola. Apirilaren 13an, zehazki. Izena ematea zabalik dago eta lehenbailehen egitea aholkatu du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko teknikari Dani Echavarrik, "15 tokiak berehala betetzen baitira". Prezioa 55 eurokoa da eta izena ematen duten neska-mutilek ekainaren 15era bitartean aizkora trebatzeko formazioa jasoko dute, astelehenero eta ostegunero, 19:30etik 20:30era, Juanito eta Juanjo Erdozia aizkolariek Etxarri Arantzen duten bordan. "10 eta 20 urte bitarteko gazteek eman dezakete izena, eta tokia badago helduagoek ere parte har dezakete" gaineratu du Echavarrik. Kirol Zerbitzuan eman behar da izena (948 464 866).

Eskola duela 19 urte inguru sortu zuen Mank-ek, aizkora trebatu nahi dutenei baliabideak eta materiala eskaini ahal izateko. Azken urteetan Juanito eta Juanjo Erdoziak dute eskolaren ardura, eta "oso gustura" aritzen direla nabarmentzen du beti Juanito Erdozia veteranoak. "Neska-mutikoen ilusio handia dute eta gustura etortzen dira. Euskal Herrian aizkora eskola bakarra dago, gurea, eta hori oso garrantzitsua da".

Astizen eta Rodriguezen maisutasuna Altsasun

DUATLOIA Hiru Herriko ihabardarra bere taldekide Ander Eslavari Altamiran erasota hartutako aldeari esker iritsi zen bakarrik helmugara. Nuria Rodriguezek bizikletan ez zuen areririk izan, eta Sergio Garcia de Eulate hamargarren sailkatu zen

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU XII. Altsasuko Duatloiak ibilbide berria mustu zuen. Iortia aurreko plazako obrak direla eta, plazan kokatu zen trantsizio gunea. Plaza izan zen probaren erdigunea, bertan baitzegoen ere irteera eta helmuga. Proba ikustera hurbildu ziren gehienek aldaketa gustuko izan zuten. Bai trantsizio gunearena, eta baita bizikleta tartea, guztiz aldatu baitzen.

Ibilbide berria, gustukoa

15:30ean abiatu ziren emakumeak eta 5 minutu geroago gizonak. 100 duatleta guztira. Ordurako zerua ilundu zen, baina oraindik ez zen euritan hasi. Korrikako ibilbidean hasieratik Hiru Herri taldekoak kokatu ziren buruan, Mikel Astiz ihabardarra eta Ander Eslava bere taldekidea buru zirela. Zirkuituari bi buelta emanda 5 km osatu ondoren, plazan bizikleta hartu eta probaren bigarren tarteari ekin zioten. Aurtengoa, ibilbide berria zen: Olazti aldera jo zuten txirrindulariek, ezkerretara sartuz Altamira igo, Olaztin jaitsi eta Altsasura heltzeko. Altsasun, Garcia Ximenez kalean, Alaska etxearen parean 180 graduko buelta hartu (duatletak ziztu bizian iristen ziren bertara eta frenatzeko nahikoa lan izan zuten batzuek), eta atzera ere ibilbide bera errepikatu behar zuten (20 km). Hain justu ere, tarte honetan lehertu zen ekaitza eta euri jasa.

Altamiran euria eta hotza pasa zuten duatletek, eta horrek proba izugarri gogortu zuen, Altamira bitan gaintu behar baitzuten. Mikel Astizek orduan jo zuen erasoa eta bere taldekide Ander Eslavari tartea ateratzea lortu zuen. Altsasura helduta, bizikleta utzi eta azken tarteari ekin zion, 2,5 kilometroko korrikaldiari. Ihabardarrak aldea ongi kudeatzen jakin zuen, eta bakarrik iritsi zen helmugara,



Bizikletako bigarren itzulian euri jasa ederra bota zuen.

IBILBIDE BERRIA AURREKOA BAINO GUSTUKOAGOA IZAN ZUTELA NABARMENDU ZUTEN TXAPELDUNEK

txalo artean (1:00:36). 39 segundo atera zizkion Ander Eslava taldekideari (1:01:15), eta 1:31 Biosnar Hondarribi taldeko Francisco Javier Soduperi (1:02:07). Sakanako Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate Top 10ean sartu zen, hamargarren sailkatu baitzen (1:04:08).

Emakumezkoetan lesio batetik osatetik bueltan zegoen Nuria Rodriguezek (Hiruki Valle de Egües) bizikletaren tartean aurreratu zuen Nerea Calvo (Lea La Blanca), eta helmugara bakarrik iritsi zen (1:12:30). Minutu bat eta 28 segundo atera zizkion Calvori (1:13:58). Hiru Herriko Lorea Burgetek osatu zuen podiuma (1:14:30).

Bukatzeke, erreleboetan Iban Urkia eta Xabier Sanchez gailendu ziren (54:49), Xabier Mazkianan eta Adrian Claver altsasuarren aurretik (1:06:08).

Sari ematea euripean egin zen. Saritutako guztiak pozik zeuden eta baita Sakana Triatloi Taldeko antolatzaileak ere, inolako ezbeharririk gertatu ez zelako. Bota zuen zaparrada kontuan hartuta, pozik egoteko modukoa.

Sakandarrak

XII. Altsasuko Duatloia (5 km-20 km-2,5 km)

• Gizonak	
1. Mikel Astiz	1:00:36
10. Sergio G. de Eulate	1:04:08
19. Juan Luis Maiza	1:06:39
20. Iñaki Alvaro	1:06:45
21. Fco. Javier Gomez	1:06:50
22. Antton Zelai	1:07:02
26. Ruben Garcia	1:07:50
38. Juan C. Gomez	1:12:23
39. Jose Ignacio Mikeo	1:12:28
52. Xabier Borrega	1:14:58
61. Peio Vergara	1:28:40

• Emakumeak	
1. Nuria Rodriguez	1:12:30
9. Marta Diego	1:33:40

• Erreleboak	
1. Ibai Urkia / Xabier Sanchez	54:49
2. Xabier Mazkianan / Adrian Claver	1:06:08
4. Isidro Asurabarreana / Ivan Sobredo	1:07:02


Altsasuko Duatloi txapelak



MIKEL ASTIZ ERRO DUATLETA

"Portuan eraso behar nuen, eta hala egin dut"

"Hasieratik talde txiki bat sortzen saiatu naiz. Ander Eslava taldekidearekin entrenatzen dut, eta banekien portuan arriskatu eta eraso behar nuela. Eta hala egin dut. Altamirako bigarren itzulian sekulako zaparrada bota du, eta kontuz ibili gara. Ibilbide berria izugarri gustatu zait, eta hobeki doakit. Hurrengo erronka Arbizu da. Pixka bat nekatuta nago, baina saiatuko gara. laz hirugarren izan nintzen, ea aurtan zer gertatzen den.



NURIA RODRIGUEZ SANCHEZ DUATLETA

"Ibilbide berria gehiago gustatu zait"

"Duatloian hasi nintzen Altsasun hasi nintzen, baina aspaldi ez nintzela etortzen. Ibilbidea aldatu dute, eta gehiago gustatu zait. Nik uste dut halako distantzia motzetan gune indartsu bat egon beharra dagoela, eta Altamirako bi igoerak primeran daude. Ez nuen irabaztea espero, bikian haustura txikia izan nuelako eta ez nekielako gorputzak nola erantzun zidan. Oso pozik nago. Errekuperatzen banaiz, Arbizuko Duatloian parte hartuko dut.



SALV Rural Hardcore taldeko kideak. UTZITAKOIA

Herritik herriarendako egindako hardcorea

Duela bost urte inguru zuten Irurtzongo bost musikaririk SALV Rural HXC taldea, baina azken hilabetetan hasi dira "gehiago mugitzen". Hardcore propioa egiten dute, "herritarra, rurala". Bihar, larunbata, bigarren aldiz ariko dira Altsasuko Gaztetxean.

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN Davidek ahotsa jartzen du, Aritzek eta Kepak gitarra jotzen dute, Jolen bateria-jolea da eta Adrik baxua jotzen du. Irurtzongo boskoteak aspaldi zeraman "zerbait jotzeko" elkartu behar zirela esanez, eta 2018ko bukarran Irurtzongo Musika Eskolan entseatzeko elkartu ziren. "Anzeko musika estiloa gustatzen zaigu, eta talde bat sortu nahi genuen". Aurretik zenbait taldeetan ibilitakoak dira, baina "betidanik" nahi izan zuten elkarrekin zerbait egin. Horrela sortu zen SALV Rural Hardcore taldea. Bihar, martxoak 25, larunbata, 23:00etatik aurrera, kontzertua emanen du Altsasuko Gaztetxean, Damned Ritual Iruñeko taldearekin batera.

SALV Rural HXC taldearen estiloaren inguruan "nahasketa" dela esan dute taldekideek. "Denok entzun dugu punka, metala, hardcorea... Eta dena elkartzen dugu. Guztien influentzia nahasketa bat egiten dugu. Ateratzen

dena ateratzen da". Ez dute estilo jakin bat bilatzen. Entzuten dituzten musika taldeen artean Cicatriz, Rip, La Polla, Eskorbuto eta punk-agoak diren taldetik New York Hardcoreraino joaten da, Agnostic Front, Terror, Anestesia edota Slipknot. "Bakoitzak bereak ditu, bere estiloa jartzen du eta dena nahasten dugu". Horregatik Rural Hardcore: "Batzuk street-punk, beste batzuk bestea... Emaizta: rural hardcore, herriko hardcorea, herritik eta herriarendako egindakoa. Jende arruntarena eta jende arruntarendako egina. Gu bezala".

Bizipenak

Momentuz bederatzia abesti sortu dituzte eta zuzenekoetan ere hiru edo lau bertsiotzen dituzte. "Gehienbat bizipenei buruzko letrak dira, kritika soziala eta gauzak ikusteko modu desberdinak. Beste batzuk giroa sortzeko eta mugitzeko abestiak dira, besterik gabe". Kantak sortzera-

ko orduan ez dute "metodo" jakin bat. "Baten batek ekarri dezake etxetik zerbaite sortua eta entseguetan lotzen eta sortzen joaten gara. Modu desberdinetan egiten dugu". Batzuetan letra aurretik sortzen dute eta horren gainean musika jartzen dute, "gehienetan horrela izaten da", eta beste batzuetan melodia sortzen hasten dira eta ondoren letra jartzen dute. "Gauzak sortzen joaten dira, ez dugu pentsatzen abesti bat egin behar dugu eta horretan jartzen gara, batzuetan ez delako ezer ateratzen".

Rural Hardcore, beraz, herrian egindako jende arruntarendako hardcorea dela esan nahi du, baina nondik dator SALV? "Horrek badu bere istorioa. Ez da ingelesa. Se Atormenta La Vecina esan nahi du". Irurtzongo musika eskolan entseatzeko ari zirela leihok Bi Ahizpei ematen dute eta paseatzeko bidetxo bat dago, "bateria jotzen ari nintzen eta emakume bat txakurrarekin paseatzen ari zela ezpainenan

irakurri nion argi eta garbi irain bat. Atera zitzaidan: Se atormenta la vecina!". Horrela gelditu zen izena, baina izen osoa jartzen badute, "kartel osoa" beharko lukete.

Zuzenekoak

"Egia esan, nahikotxo mugitu gara". Inguruan eman dituzte kontzertu gehienak, baina Elizondan, Urretxun eta Txantrean, esaterako, zuzenekoak egin dituzte dagoeneko. Altsasuko II. Sagarrafest jaialdian jo zuten eta bihar Altsasuko Gaztetxera itzuliko dira. Kontzertu "motzak eta sendoak" ematen dituzte. "Hardcore musika estilo bat da. Eta, hau ordu eta erdiz entzunez gero, kontzertua amaitzea nahi dugu eta hori ez dugu nahi. Ez dugu jendea aspertu nahi". Hardcoreko kontzertuak "intentsoak"

direla esan dute. "Motzak egitea gustatzen zaigu jendea gogotan gelditzen delako ere". Jendea eszenatokiaren aurrean, gertu, egoteak ere motibatzen dituela esan dute.

Youtuben igo duten lehenengo bideoklipari esker jendea taldea ezagutzen ari dela esan dute kideek. "Gaur egun zerbaite bisuala egin behar duzu eta sare sozialen bidez mugitu. Jendeak ezagutzen zaitu eta horregatik ari gara mugitzen". Ezagutzera emateko zerbaite egin behar zutela pentsatu, "eta zortea dugu inguruan baditugulako laguntzeko prest dauden lagunak: argazkilariak, bideogileak... Jende pila bat etorri zen ere grabatzera".

Apirilaren 17an bere lehen estudio lana izango dena grabatzera sartuko dira, eta beste bideoklip bat ere grabatuko dute.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Manga da erregea

Duela aste pare bat, Interneten nenbilela lagun bat aurkitu nuen komikiei buruz hitz egiten, kezkatuta. Liburu denda baten argazki bat komentatzen ari zen. Denda horretan komikien sailean hainbat apalategi zeuden, baina begi bistan zegoen zein zen handiena: Manga, hau da, komiki japoniarrei eskainitako apalategia. Lagun hau kexuka zebilen, nola da posible mangaren apalategia handiena izatea? Non dira, beste komikiak? Nobela grafikoak?

Harrigarria iruditu ala ez, hau ez da ezer berria. Badira urteak manga komiki mota ospetsuena eta kontsumituena bihurtu zela. Ene iritzi ez da hain arraroa, manga berez oso mundu handia delako. Hasteko, ez da berezko komiki mota bat, mota eta genero askoz osatutako komiki estilo eta estetika bat baizik. Askotan manga guztiak zaku bakar batean sartzen ditugu eta mangaren barruan hainbat mota ezberdin aurkitu ditzakegula ahazten dugu. Bakoitza bere izen

japoniarrarekin, noski: *Shonen, Kodomo, Mecha...*

Horretaz gain, mangak badu bere ondoan laguntzaile boteretsu bat: Animea. Askok laburtuta, marrazki bizidun japoniarrak dira. Aurreko parrafoan esan bezala, ez da genero bat, gai estetiko bat baizik (ulertzea espero dut, ez baitaukat berriz azaltzeko tokirik, lagunok). Animeak asko eta asko inspiratzen dira mangan. Anime pila mangan moldaketa hutsak dira, azken finean. Telesailak eta marrazki bizidunak errazagoak dira kontsumitzen eta zabaltzen, are gehiago, gaur egun, internetekin. Horrela, animearen laguntzaz pertsona askok lehenengo barrera bat hautsiko dute. Animea ikusten duen norbaitek errazago izango duelako eta erosoago sentituko delako manga komiki bat irakurtzen beste edozein komiki mota baino.

Beste arrazoi bat moda ere izan daiteke. Gaur egun gazteok anime asko kontsumitu dugu, modan dagoelako. Aspaldi, manga ez zen ezagutzen eta Mortadeloren tebeoak ziren famatuena eta irakurrienak. Eman mangari aukera bat. Hain mundu zabalean gustuko izango duzuen komikiren bat egon behar du. Ziur nago.

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

"Oso lakuntzarra sentitzen naiz eta harro". Isabel Agirrezabala Lizarraga Donostian bizi da, baina amaren familia Lakuntzakoa da eta bertan pasa zituen haurtzaroko eta gaztaroko uda guztiak. Urte batez ere Lakuntzan bizi izan zen. "Niretako Lakuntza gaztaroa da, familia, bertako nobio bat izan nuen, ahizpa Lakuntzako batekin ezkondata dago eta anaia Ihabarko batekin...". Bere pasioetako bat antzerkia da eta antzezlea ez ezik gidoilaria ere bada. Tarima Beltza Altsasuko antzerki taldeak bihar, martxoak 25, mustuko duen *Sin salida* obraren egilea da.

Antzerkia gustatzen zaizu.

Hogeitau urte daramatzat antzerkian. Hiru taldetan egon naiz: Kemen, denak emakumeak gine-la; ONCEko Oroimenak taldean eta duela zazpi urte Nueve teatro sortu genuen. Orain sei gara. Txapelketetan parte hartzen dugu, trukeak egiten ditugu eta abar. Gidoiak idazten ditut ere, saltseroa naizelako.

Nola hasi zinen?

Artea eta dekorazioa ikasi nuen eta pintatzea eta eskulanak egitea gustatzen zait. Txikitatik antzerkia egitea ere gustatu izan zait. Txiste asko kontatzen nituen eta antzerki forma ematen nion. Antzerkia txiste luze bat bezalakoa zela pentsatu nuen. Betidanik gustatu izan zait, eta oso-oso lotsatia izan naiz, baina antzerkiak egiten duena da beste pertsonaia batzuk bihurtu eta barruan duzuna kanporatzeko aukera ematen du. Azken finean, pertsonaia guztiek badute gure zerbait. Pertsonaia bakoitzarekin gure barruan dagoen zerbait ateratzen dugu. Eszenan zure esentzia uzten duzu. Askok gustatzen zait transformatzea eta lotsa pixka bat kentzen dut. Duela zenbait urte esan balidate kapaza izango nintzela eszenatokira ateratzeko bakarrizketa bat egiteko ezinezkoa zela esango nuke. Orain egiten dut. Isiltasuna menderatzea ere izugarria da; jende guztia esan duzunaren sentsazio hori gogo-betegarria da.

Eta nola hasi zinen idazten?

Gustatzen zait. Beti komediak idazten ditut. Oso eroak eta, batzuetan, absurdoak. Baina jendeak barre egin behar du. Drama handiendako bizitza dago. Antzokitik irribarre batekin atera behar da jendea eta zeinen ongi pasa dudan esan. Zoriontasun pixka bat emate

"Film bat ikusten egongo banintz bezala idazten dut"

ISABEL AGIRREZABALA LIZARRAGA ANTZERKIGILEA

Tarima Beltzak eszenaratuko duen 'Sin salida' lanaren sortzailea da. Gaztaroa Lakuntzan pasa zuen, eta berta bizitutakoa idazteko inspirazio iturri izan ohi da



Isabel Agirrezabala Lizarraga antzerkigilea. UTZITAKOIA

tea eta egunerokotasunaz ahaztea. Hori da idazten dudana. **Zenbat lan idatzi dituzu?** Nirea ikaragarria da. Hamar bat lan idatzi ditut, baina zortzi nik idatzi nituen baina zuzendariak

"ANTZERKIAN JENDEAK BARRE EGIN BEHAR DU, DRAMA HANDIETARAKO BIZITZA DAGO"

bere izenean jartzen zituen. Ni talde horretan nengoen, baina inork ez zekien nireak zirela. Egun batean nekatu nintzen eta zuzendariari esan nion txorizoak egiteko fabrika batean bihurtu nintzela eta errekonozimendua nahi nuela, nik idazten nituelako lan horiek. Orduan nire kontura hasi nintzen idazten. Tarima Beltzako Zapak deitu zidan eta esan zidan zerbait egin nahi zutela eta ea banuen zerbait idatzita. Gidoi bat idatzita nuela esan, pasatu nion eta gustatu zitzaion. Arazoa zen taldea utzi zuen emakume bat itzuli zela eta beste pertsonaia bat behar zela. Socorroren pape-ra sartu nuen.

Zertan inspiratzen zara?

Nik ez dut nire burua super gidoilari bat bezala ikusten. Auto-didakta naiz. Lan dibertigarriak dira eta jendeak ongi pasatzen du? Bai. Egia da Lakuntzako gaztaroko gauzak erabiltzen ditudala. Familia pixka bat berezia izan gara. Orduan, nire lanetako anekdota asko Lakuntzako familiakoak dira. Askok eman dit Lakuntzak. **Zein da zure idazteko prozesua?** Ideia bat bururatzen zait, adibidez orain nire talderako idazten ari naizena da gizon bat hilzorian dagoela eta bere bizitzako ilusioa Celia Cruz ezagutzea da. Ez daki hil dela. Orain moja den neskalaguna izandako bati esaten dio Kubara eramateko Celia Cruz ezagutzeko eta bere diru guztia utziko diola. Festa bat egingo

diote eta Travela Vargas trabestiak Celia Cruzen papera egingo du. Ideia bururatu eta idazten hasten naiz. Nik ez dakit zer esango duten pertsonaiek. Pelikula bat ikusten egongo banintz bezala idazten dut. Behatzak idazten doaz. Ez dakit nola bukatu den, eta bukatzean pentsatzen dut: "ze originala". Eta nirea da! Batzuetan gelditu behar izaten naiz; Zapak esan zidan gauzak kendu behar izan dituztela oso luzea egingo zelako. Telesailak idatzi ditzaket, antzezlanak baino. Testuak hotzak dira eta aktoreak aberasten ditu. Bizirik ikusten dut eta irudikatzen nuen moduan ikusten dut.

Tarima Beltzakoek diote badirudie-la haien pertsonetan oinarritu zarelana lana sortzeko.

Baina ez! Aurretik idatzita nuen. Esan zidanean interesatuak zudela Zapa pertsonaia batean ikusten nuen, bestea beste batean... Nire taldean ere gertatu izan zait Ez zen beraiendako sortutako lan bat, baina patua da. *Sin salida*n sortu dudana pertsonaia aktorea ez nuen ezagutzen, eta esan didate bat egiten dutela eta barrez lehertzen direla berarekin. Nire amonari Lakuntzan sorgina deitzen zioten gauzak igartzen zituelako eta niri esaten zidan botere bera nuela, beldurrik ez izateko. Sorgintxoak izango gara.

Nola sortu zenuen?

Pentsatu nuen ea zer gertatuko litzatekeen toki itxi batean ezezagun batzuk elkartuko balira. Ordu asko pasatu behar duzu itxita, eta pertsonaia desberdinak sartu nituen: sekretu bat gordetzen duen aurrejubilatua, soltero, emakume independente baina bizitza gabea eta bere bizitzarekin zorionsua den etxeko andrea; gero beste pertsonaia bat sartu nuen eta ondoren bestea. Egia da batzuetan ezagutzen dudana jendea inspiratzen naizela. **Aktore edo idazlea? Eta zuzendaria?** Interpretatzea asko gustatzen zait, asko; komedia gustatzen zait eta drama handia ere bai. Noizbait dramatza bat idaztea gustatuko litzaidake. Biekin asko disfrutatzen dut. Ezin dut erabaki. Zuzentzea, aldiz, ez zait gustatzen. Taldean neska gazte bat hartu dugu. Gazteengan konfiantza izatea gustatzen zait. Mikroantzerki bat egin dugu La Farandulan eta Madrilera eramango dugu. Baina nik zuzendu, ez Ez dut alboratzen; gauza askotan sartuta egoten naiz.

"Poza ematen dit erlojua puntuan dagoela ikusteak"

Esteban Azpiroz Lopez Iturmendiko sakristaua da eta elizako erlojuari giltza ematen dio. Juan Mari Lanzek egiten du erlojuaren mantenua eta elkarrekin egindako lanari esker iturmendiarrek ordua puntuan dute. Asteburuan ordua aurreratuko dute

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI

1 Nola hasi zinen Iturmendiko elizako erlojuari giltza ematen?

Erlojuaren ardura Iturmendiko Udalarena da, ez elizarena. 2.000 urte inguruan hasi nintzen. Aurretik Santi Agirre aguazilak egiten zuen. Parrokia-etxean berrikuntza lan batzuk egiten ibili ginen, eta Santik esan zidan tarte horretan ez gintuela herriko auzolanetara deituko. Egune-ro pasatzen nintzela elizatik eta erlojuari giltza emateko ardura hartzea ez zitzaidala axola aipatu nion. Horrela hasi nintzen, gaur arte. Nire auzolana zen.

2 Nolako da Iturmendiko erlojua?

1.970-71 urtekoa da, Iruñean erosia, Joaquín Erviti etxekoa. Makineria marduleko pendulu erlojua da, denbora neurtzeko pisua behar duena. Giltza eman behar zaio. Harrizko bi pisu handi ditu, koroan ikus daitezkeenak. Erloju honen aurretik bazegoen beste bat, baina gehiegi lausotuta zegoela, eta berria erosi zen. Egungo harrizko pisuak erloju zaharrarenak ziren, berriak burnizko pisuak zituelako, uztaiak. Erlojuaren mantenua egiten duen Juan Mari Lanzek tematu zen, eta zaharrak jarri zizkion.

3 Nola funtzionatzen du?

Erlojua kanpandorrera bideko gelatxo batean dago. Pendulua du; penduluarekin erregulatzen da ordua. Ordua ematerakoan, pisu handia eusten duen sirga bilduta dagoen karreteak bira ematen du eta pisu handiak behera egiten du. Pisu txikia, aldiz, penduluarena da.

4 Zenbatero eman behar zaio giltza?

Lehen pisuak elizaren beheraino heltzen ziren. Orduan astean behin ematen zitzaion giltza,



Esteban Azpiroz eskuzko biraderarekin erlojuari giltza ematen.

baina 1.988 urtean elizan obra egin zen eta pisuak laburtu ziren, koruraino. Orduetik astean bitan ematen zaio. Asteazkenetan 12:00etan eta larunbatetan 18:00etan etortzen naiz.

5 Nola ematen zaio giltza?

Lehen eskuzko biraderarekin egiten zen, biradera pisua eusten duen sirgaren karretearen heldulekuan sartu eta eskuz giderrari buelta emanez. Larunbatean 45 bira ematen nizkion, eta asteartean 40 bira. Baina 2.017tik aparailu elektriko bat erabiltzen dugu. Juan Mari Lanzek prestatu zuen, eta errotaflex antzeko bat da. Aparailua karretearen ardatzean sartzen da, martxan jarri, eta berak ematen dizkio bueltak karreteari. Sirga markatuta dugu, noraino eman behar dugun jakiteko. Azkar egiten da, 10 minutu inguru. Penduluaren pisu txikiari, aldiz, eskuzko bi-

raderarekin ematen diot giltza. Bi sistemak mantentzen ditugu.

6 Erlojuari giltza ematen ez bazaio, zer gertatuko litzateke?

Koruko pisuek behera egingo zutela, topea bilatu arte. Pisu handiak ordua ematen du, eta txikia pendulua da. Beraz, erloju geratuko litzateke.

7 Martxoaren 26an erlojua ordu bat aurreratu behar da.

Bezperan egiten dut. Aurreratu behar denean, erlojuari mailua kentzen diot orduak jo ez dezan, eta orratzak biratuz ordu bat aurreraten dut. Ordua atzeratu behar denean, aldiz, pendulua gelditu eta erlojua gelditzen dut, eta ordu bat pasata jartzen dut martxan. Bestela, atzeratzeko buelta guztiak eskuz egin beharoko nituzke. Pendulutik erregulatzen da ordua: ordua aurreratzeko azpian duen torlojua estu-

tu behar da, eta atzeratzeko torlojua askatu. Erlojuaren bizi-tza penduluan dago.

8 Iturmendiko erlojua puntu-puntu egoten da?

Hala egon dadin saiatzen naiz. Irratia dut, erlojua orduen seinaleari egokituta eta puntu-puntu egoteko. Udan aurreratzera egiten du erlojuak, burniaren dilatazioa dela eta, eta neguan, atzeratzera. Erlojua orduen seinalea egokitzen dut beti.

9 Erlojuak gustuko al dituzu?

Beti gustatu izan zaizkit. Altsasuko Iramen enpresan lan egin nuen. Etxeetarako erloju elektronikoa egiten genituen. Etxean pendulu erlojua dut ere. Herri askotan elizetako pendulu

erloju zaharrak kendu dituzte eta haien ordez elektronikoak jarri dituzte. Pena da.

10 Zure lekukoa hartuko al duen norbait al dago?

Momentuz ez, baina erlojua udalaren ardura denez, norbaitek hartuko du. Eskailerak igotzeko gai naiz eta gustura egiten dut. Ilusioz. Poza ematen dit erlojua puntu-puntu dagoela ikusteak.

11 Erlojuari giltza emateko mekanikaz jakin beharra al dago?

Ez. Edonork egin dezake. Soilik gogoia behar da, gustuko izatea. Nik ezin dudanean Lanzek egiten du. Egun ezer gutxi egiten da borondatez, baina ez dut itxaropena galtzen. Norbait aterako da.

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus